


zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 PREZIOA 4 PEZETA

Donostitik Bilbora ta Iruñatik-Bilborako burni-bide Zabala



Jose Maria Elosegi jaunak, (Ubide ta Portuetako ingeniaria berau), «El Automovil Club» izeneko aldizkarian idazlan au argiteldu berri du:

Aspalditxo ari dira esan da esan, Donostitik Bilborako tren-bideak berri bat baar lukeala. Bilbotik Behobiararen egiten ari diran autopista ori dala-ta, berriro aizatzekeo da gai au. Trenbide onen zatia kentzeko da urte gutxi barru, ta ikusia dago nolako irabazi eskasa ematen duan. Ala ere, kontu moldatzea, zailla da, noski.

Probintziko arazoen artean, aztertze degu egiteko ori, ta au arkutu degu kontu ontan:

Tren-bide au berriatzea, zailla dala dirudi gaur daukan bidetatik. Baiña beste irtenbide bat ere ba du kontu onek. Gure iritziz au esango genduke egiteko:

Guk Zumarragako errian asiera omango genitke bide berriari. Antzuola gainetik, Doba ibaia gainean oso goitik igarota, Anglozar auzotik zear Elorriora itengo ginake ta Durango'n lendik daukagun Bilborako burni-bidean sartuko ginake aurrerako.

Donostitik Bilborainoko burni-bide orrek 113 kilometroko luzera izango luke. Tren-bide berriak 20 kilometroko luzera izango ligituko, ta 40 bat kilometroko aldaiketa gaurko bide estuko tren-bidean. Bide berri onen alde ona, au izango litzake: onela itxas-ertz aldeko bidea, bide nekezena alde batera utziko litzake. Gaiña, Zumarragatik Elorriorako bide berria ain goitik eramanaz, errien urrean izaten diran istiluak ere gutxitu egingo lirake. Onela, berriutak gu kilometrotan egin bearean, 60 kilometrotan bakarrik egin bearko lirake. Beste alderdi on bat ere ba du berekin asmo onek: Gipuzkoako

Ego-aldea Bilborekin lotua geldituko litzakela. Ta alderik onena au izango genduke: Iruñatik Bilborako bidea, len Mirandatik egiten zana, oraingo bide berri onatik 70 kilometro motzagoa izango litzake, Iruña,

Altsasu, Zumarragatik zear. Eta 20 kilometro motzagoa, Iruña-Gasteiz-izarratik zear egin ditekene baiño. Gaurko bide estua Mugarakoarekin batuta, urri-azuetako tren-bide bezela gelditu ditekere bere zati aundietan.



NUN-ZER

- **ELEIZ BARRUAN PRESO**
A'tar Jok 3-gnan.
- **KONTUAN HARTZEKOAK**
Larresoro'k 3-gnan.
- **KULTURA GAIK** 7-gnan.
- **GAZI-GAZAK**
Abeletxe-k 10-gnan.
- **ZENEKIN**
Arteche-k 12-gnan.
- **OTEIZA: BORONDATEA**
Otegi-k 12-gnan.

“ORBEGOZO”KO LANGILLEAK

Bada illabete Zumarraga-ko Esteban Orbegozo-ren Fabrika langilleak lanari utzita daudela. Gertakizun berri gutxi dakigu. Egunerokoak berri gai ontan labor xamar ari-tzen dira. Ia iru milla langille omen dira lanetik apartaturik daudenak. Zer eskatzen duten? Segurantz ta osasunbide geiago eta enpresatik bota dituzten gizonak berriro itzuli ditezela. Fabrikatik botatakoak Zumarraga-ko azaroren 22'tik gaurdaino bilduta daude. Asieran ogeita bat eta geroztik geiago. Zuzentzaileak eta langilleak bein eta berri saiatu dira azalpenak eta pakea egiten, baiña alperrik. Enpresak esan zien il onen amabos-terako lanean asten ez ba ziran la-beak itzali egingo zituztela, ala gertatzen ari dan bezela. Momentu estuak alegia ainbeste Familien-tzako. Gipuzko-ko ta Madrid-ko Langilleen Komisiñoak beste egi-ñaldi batzuk egiten asi dira solu-zioak iristearren. Gauzak beltz dau-dela ta langille batzuk beste probintzietara joan omen dira; beste asko an eta omen lanbidea arkitzen ari omen dira. Gipuzko-ko elizetan diru-biltzea egin zan eta Bilbo al-dian ere egin da, Iruñ-go Palme-ra-k, Donosti-ko Banku batzuk eta Eibarko dozena ordi bat Fabrika, geldituz, Orbegozo-ko langilleen alde agertu dira lengo astean. Fa-briketan, jolas tokitan ta abar di-ru biltzea edo diru-kutxa jarri omen dute. Izan ere, nagabea aundia da Eguherriko jaietan orrelako prolema bat gure begien aurrean izatea. Gure gerrikoak estuturik lagun egin bearko diegu danon ar-tean. Izan ere, gauza au zuzendu bear zan illebete igaro baiño lena-go. Orrenbeste gizon larri dirala nola berean jarrai? Gizon beartu oien alde arkitzen gera. Beren joera nekosoia baiña bikaña igar-zen zaigu. Eta berentzako ta ondo-engoentzako etorkizun oiea eka-rriko balitu!



ALEXANDER SOLJENITSYNE

Orain dala bi aste bete esan genuen bezela, Alexander Soljenitsyne, errusiar idazle bikaña, idazleen Elkarte nagusitik kanpora jarria izan zan Azaroaren 11-an. Andik amabost egunera Mosku-ko kultura-agintariak bere eririk kanpora joatera beartu zuten.

Ori izan da agintarien aluzia. Oso desberdina ordea, beste errusiar idaz-leena. Ara nola mintzaten zan Kie-v-en Victor Nekrassov famatua, garai batean "Stalin" saria irabazi zuena: "Esan dezagun emen idazle bat dagola, idazlerik aundiena; eta Soljenitsyne duela izena".

Mosku-n berriz olerkari gazte Andrei Voznessenskik alaxe zion: "Sol-jenitsyne da aundienetan aundiena". Baiña ofizialki buru diranak esetz dio-te. Idazle ona ez ezik, orain ez dala idazle errusiara. Nola? Arek esan bait zien arpegiz-arpegi euren ordulariak konpontzeko, alzeratuak zeuz-katela-ta. Askotan egia miña ematen du. Beste askotan bildurra izaten da gaitzik aundiena. Idazleei galdetu.

Ara alboa "L'EXPRESS" astekariak azaldu dun idazle zapaldu onen irudi bat.

BERTSO BERRIAK

GRIPERI

— 1 —

Aurten Urrilla ona jun zaigu
bañan gaitzak beteta,
gripe zitala berekin zuen
eta etzan berriketa!
Bizkarretikan otzak
eta dardaraz ortzak
denok oean gordeta...
Ezur da azal gelditua naiz
lendik argal negon eta!

— 2 —

Amabost egun oean pasa
eta indar danak falta,
alimentua auxen izan det:
porrusalda eta malta°
Sugarra eten gabe
gorputz guzia labe
gaitz au olakoa data,
nai ordurako nik ez det artu
gaitz aldi onetan aital

— 3 —

Jeiki orduko txorabioa
gela jira eta bira,
len indar gutxi baldin banitun
etorri zaizkit erdira.
Andreak lagunduta
besotikan elduta
noiz eroriko begira...
Une onetan nere kemenak
ikusgarriak ez diral!

— 4 —

Sandagillea salatua da
nere onez gogotikan
bixitazera etortzen zaidan
eguneroko goizetikan.
Termometroa jarri
ikusten nindun larri
ortan ez daukat dudikan,
zenbat «balazo» sartu ditutan
nik atzeko leioltikan!

— 5 —

Mediku jaunak ez jakin arren
nik mila proba eginak
amonatxo bat auzoan ba-det
eta aren alegia!
Sendagileak prestatu
naiz neri ez gustatu
ain ziran garrazt, gordiak,
nere ustetan sendatu naute
enplasto ta belar minak!!

— 6 —

Alakon baten agur egin dit

neregan jabe zan gaitzak
auldadearen mende nagola
ez dira agoko itzak.
Kilotan bajatuta
kolorez gaituta...
Lengoak billatu itzak!
Europa danak dilin dalanka
ta zer esanik ez gaitzak!!

— 7 —

Negua laixter gaineen degu
ba-datoz elur, itzotzak,
zer datorkigun pentsatzeakin
pozik ez nere biotzak.
Eguzkia motela
odola nik epela
ta egunka labur, motzak...
Ene Jainkoa ez nazala il
aurtengo neguko otzak!!

— 8 —

Ni ikusita arriturikan
gelditzen dira jendeak
bildurtzen ditu danak osoro
nere itxura trixetaz.
Kolorez nago ori
egi aundia ori
jun ziran lengo usteak...
Pozik artuko nituzke orain
Urtañ'en indar sobreak!!

— 9 —

Ez gaitzala gaitz onek galdu
lagun beazat Jaungoikua,
od len ere Berak altxa oi ditu!
bi zikur gure modukua.
Ori da eskaria
eta ez uskeria
jaso eroritakua...
Negu ondoren txusper nazala
Udaberriko kukuak!!

— 10 —

Gaitz petral onek nola utzi naun
orra garbiri itzeñi,
beste guziak benetan txarrak
bañan au ezta atseñi.
Aitortu ditut danak
nigan pasa diranak
jendea enteria dedin...
«Ibai-Ertz»ek au gertatu arte
gripen berririk etzeki!!

JESUS LETE
«Ibai-Ertz»

Isasondo, 1969'go Santa Zezilla
eguna

URTE - ZAHAR!
URTEBERRI!
ERREGE - EGUN!!!

Eskeini zure auzokoari,
zure adiskideari, zure erri-
ko bati, ZERUKO ARGIA-
ren arpipe-oparia. Moztu
arpipe - txartelaren zatia,
eta itzuli iguzu beteta.

1970-ko arpipe-saria bialdu
«ZERUKO ARGIA»-ra

Okendo, 22 — DONOSTIA

NAI BADUZU, JAKINERAZIKO
DIOGU ZUK ESKEINITAKO
OPARIA DALA

NERE BORDATXOTIK

KAMIO TAKO JENDE
GALTZEA

Gertatzen diran gauzak aiatu
nai ditut berealaxe,
jaunak, atzera ez ote goaz
kangerejak bezelaxe?
Kamioetan alkar jotzen or
ainbeste moto ta kotxe,
etxetik irteko beldurrez
jarri gaude orainxe.

Danak presaka, danak azkar
(na)

motorrak jarri garretan,
inõiz edari gelxo sartuta
gañera ordu txarretan.
Bizi geranok eriotzari
beti baigande zorretan,
olean aña kristau ilzten da
gaur kamio bazterretan.

Bide zabalaz zipiritindurik
kristauen odol berora,
il bear triste, errukarria
ez ote da emengoa?
Ainbat berri txar jakinda zeñek
kamioaroko gogoa?

Zer balio du zuzen joateak
oker badator besteak?
umeak berdin gaitzen dira-ta,
zarra bezela gaitzea.
Lastimagarri dala uste det
ola bizia ustea,
kotxea baño ez al da obe
mando zar bat erostea?

BIZIMODUA GORA

Jornalak altxa bear dirala
len baño zerbañt gorago,
oso bidezko dala uste det,
baña ni beldurrez nago.
Esaldazute, lagun malteok,
gauza onik ote dago
bizimodua igotzen bada
soldata baño gelago?

Sekula baño palta gelago
egiten du gaur diruak,
iges dijoaz berealaxe
asko kostata bilduak.
Derrigor jarri bearrak daude
prezientzat frenuak,
gaitzak bete lan artu duela
uste det Goibernaluk.

1969'garren urteko abendua'
ren amalaugarren eguna.

«Arria» aizkolaria dotore dabil.
Beziperan, Santa Luzia eguna,
Urretxu'ko «Villarreal» «Ederre-
na» pelotalekuan, Ezkurra'ko Min-
degia menderatu zun.

Egur baten alde, (bentaja)
eman zion Mindegia'ri. Gogor es-
tutu zun ezkurratat gazteak, ain
aizkolari trebea izanik, baña az-
petiaria nagusi.

Urregio egunean, abendua'ren
amalauean, irabazte, baltere, Az-
peti'ko zezen plazan, makal-ar-
bol beldurgarria ebaten.

Egundo sekula baño obeto zail-
dua dagola esango nuke «Arria».
Begiratura luzea ta igarra ema-
ten ditu, ta eun da iru kilo pila-
zen ditu.

Aizkolari batenzat eska bate-
ken gorpuztik egokienetakoa da
«Arria»-rena.

Ikusi egin bear da aren aizko-
ra zenbat bidean etortzen dan.
Indarra dauka itxura gabe, bes-
talde.

Gozoa dago arranetan, orain-
txe!
Enbor ari begiratura ikaratu
egin bear batek.

Balorea bear zun ari ekiteko, ta
ordu ta erdiko denboran ura bi
zati egiteko.

Zazpi minutu ta bi segundo so-
bratu zitzaizkion «Arria'ari».
Ordubate, ogeitabi minutu ta
berrogeitamezortzi segundoan
ebaki zun.

Ango txalo «ta» bejondakela»
otsak!

Ankak lurrean zitula asi zan la-
nean.

Eguraren galkaldean anka-le-
kua egitea komeni zitzaion.
Amalau-amalau minutu pasa zi-
tun egiteko artan.

Erlojuak aurrera egiten zun, ba-
ña «Arria'k» bazekin zertan ari
zan.

Artexek izan bear zun, derrigor,
lenengo eginkizuna, gero gauzak
ondo itengoa baziran.

Zazpi aizkora zitun berekin.
Kerten motzak, erdipurdikoak,
kerten luteak...

Danak zitun barezkoak. Bada-
ezpada ere-eraman egin bear
beintzat, dan-danak usatu ezpa-
tun ere.

Bakar bakarrik aritu zan lanean.
Federazioko gizonak besterik
ez inguruan.

Etzeukan erakusle ta laguntza-
lilerik izaterik. Paperean alaxe ze-
gon jarria.

Bere indar eta talentuz bala-
tu bear.

Olaiko egur itxusi ta zakar ba-
tekin indar utsak eztu balio. Buru
ona bear da; opizioa ondo jakin
bear da.

Beste gañontzean, alperrikako
nekeak artuko ditu edozeñek.

Boin bakarrik ikusi nun urez
aia bustitzen.

Etzun batere atsedendirik ar-
tu. Jo ta jo, denbora guzian. Erru-
ki gabe joaz gañera.

Alek zartakoak!
Enboraren barrenaldean ezpal
pilla osatzen zitzaionean, enbor
gañetik jexi, ta berak egiten zun
atzaparreklin garbitasuna.

Ostera gañera igo, ta... jarrai
lanari.

Ebaki baitezcan irten ziran tra-
besak.

Izan zan, ordea, bolaratxo bat
jendeak etsi zun.

Denborak aurrera zijoazen, eta
artean koska aundia ikusten zan;
lan asko zegoen egiteko.

«Eun duro ebaki ezetz»; «eun
larogelri ebaki ezetz».

Etsi etzuna «Arria» izan zan.
Segi egiten zun, eman da eman,
zuloa zuloa egin da zuloa egin.

Ez nun pentsatzen gizon bakar
bat egiteko artan ikustera ainbat
jende bilduko zanik.

Sarrera merkea zan, egia esan:
bost duroko sarrera.

Diru orrekin eztago gaur ezer
askorik.

Federazioko gizonak Anabitar-
te (aita) ta Agirre gaztea izan zi-
ran.

Ezin da giro ohea zan aizkora-
rako. Abuztu'ko bero zakarra ba-
ño ohea, zinez. Gañetik begira ge-
undenentzat otzezi, aukeran.

Aizkolaria etzeukan otz bel-
durrik.

Izardi ederra aterata zun. Bear-
ko!
Betealdirik ez genion somatu;
lilaldirik etzun izan.

Irabazi zun, eta legez irabazi
ere.

Eztago obeto portatzerik; egin
zuna baño gelago egiterik.

«Arria» ez ote dago aizkora
lan txarrak emateko?

Lengoa berriazera nator.
Inõiz ez bezela zaildua ta pre-
paratuta dagola pentsatzen det.

Eta, ori ala izanik, onenak ere
gaizki artu lezazke.

Bi-bitara jokatzeiko inõr baño
aizkolaria ohea jotzen zun len ere.

Bakarra astakoa, berotu, lertu
egiten zan len.

Abendua'ren amalauean, ordu-
terdian jo ta jo kupira gabe arita,
oso gordin eta prexio bukatu
zun.

Kontuz ibili, mutilak, «Arria»
rekin!

Gure lankide «Andres Lazkau-
ko'k» argitaratu du bigarren liburua.

Ezta aundia: eun da ogeitama-
lau orrialdekoa.

Euskalerria alfabetatu bear da
diogun onan, buruzpide baka-
rra darabilki «Andres Lazkauko'k»

«Kirikio» zanak «Abarrak» ize-
neko liburua argitaratu zunean
erabili zun buruzpide ber-bera.

Alfabetatze lan ortan erriari la-
gundu nai lioke; euskerangana
zaletu nai luke erria.

Au ola ezizatera, «Anes Laz-
liburuaren atarian:

«Irakurtzen ote zekien jakin
nairik ederazko periodiku bat es-
keñi zion Idola'ri Urria jaunak.

Begiratu bat eman periodikua-
ri, begiak jaso, ta dio Idola'k:
«Nik irakurtzen ba-dakit, baña
letzen ezkitak».

Orra gauro egunean euskaldu-
nekin gertatzen dana, baña, al-
deantzi: erdera letzen ba-daki-
te; euskera irakurtzen eza.

Egi biribilla, zinez, aitortu nai
badegu ta ezpadegu.

Au ola e zizatera, «Anes Laz-
kauko'k» liburu au argitara ema-
teko asmorik etzun artuko.

Au dio egillak:
«Liburuxka onekin euskeraz ir-
akurtzen euskaldun bateri lagun-
duko banio, pozik nengoke. Neke
apurak ontzat emango nituzke».

Lortuko dezu orrenbeste. Egon
lasai alde ortatik.

«Oto ta Pototo» da liburuaren
izenburua.

Bide xea ta umilla aukeratu du
«Andres Lazkauko'k»; erria ber-
bera bezelakoa.

Ipui ta gertakari ezagunak dira
asko, Oto ta Pototo'ren izenean
agertzen diranarren.

Batere neke ta buruasterik
gabe irakurriko dituzu.

Askotxo izango dira liburu au
aintzat artuko ezutuenak. Oñez
ikasi gabe gaude oraindi' eus-
kaldunok euskerari buruz, eta
norbaizuk Platon'en mallako
idazleak nai dituzte goizetik ga-
bera.

Bienbitartean, erria alfabetatu
ozinik ari gera.

Lengo neskezarrari gertatu zi-
tzalona gertatzen zaigu: oñezko-
rik etzun itximatzen; zaldizkoa
nai mundu guzitik.

Azkenean, ez oñezko ta ez zal-
dizko: neskezari!

Bavanni

ARPIDE BERRIEN IZEN-ABIZENAK

1.-Izen-abizenek	
Zuzenbidea	
Erria	(Prob.)
2.-Izen-abizenak	
Zuzenbidea	
Erria	(Prob.)
ARPIDE-OPARIA EGITEN DUANAREN IZEN-ABIZENAK	
Izen-abizenak	
Zuzenbidea	
Erria	(Prob.)

Bialdu iguzu Pezeta, 1970-rako
Bankuko-txekez — jiro postalez — Letra-bialduz — ZERUKO AR-
GIA-ren izenean, Okendo, 22. DONOSTIA.



URTE-ZAR

Amaitu zaigu 1969'go urtea ere. Gertaera sonatu ta ixillak, mingarri ta pozgarrik. Atzerapen eta aurrerapen. Maltasun eta gorroto. Pake ta guda. Leialtasun eta maltzurkeri. Gutzit izan du.

Gertaera nagusi ta aztoragarri: illargiraño irixtea. Ta gertaera guzian eragin gizaika tartean. Batzutan ganean, bestetan aplian. Aldiz nagusi, aldiz morroi. Batzutan mundua aurreratzen, egiten: bestetan desegiten, ondutzen. Gertaera oien artean gizaika burrukan, zapelduta, etsita, minduta, gizarikote zurrinbilloetan gatz-zorian.

Aztu egiten zaizkigu zenbait gora-bera. Aztu egiten zaizkigu, bai. Batez ere besteren miñak zaizkigu aztutzen azkar.

Baia urte-mugan gogoratu erdin bear, oien aurrean nere bizitza ta jokabideak aztertzeko. Nere buruari galdere bat egiteko: Errurik bai al du? Zer egin dut gerta ez dizeen? Egoera zital orren atzaparretan erori diranei laguntzeko ezer egin al dut? Gizarote obagotzen sailatzen al naiz? Giro ustel au jatorjin al eginduko al naiz? Ondo bizi-nairen io-zorro gozoan jarraitu al dut?

Bere seme-alaba batzuk espetxean, igesian, erbestean zitula asi zun Euskalerriak bukatu dan urtea. Ta ala bukatu du. Nolako jaiotza alako eriotza. Urte-zar, urte-zar.

«Bereizketa-legeak» jorratu gogorra eman zion Euskalerriari. Erbesterautako asko.

Lege orren aitzakian lantokietatik bidaltakoak ez gutxi.

Eunkak etxetik beartuta erizaheta eramanak.

Etke-miaketa zortzotak. Apaiz eta praille-etxeen zoko-miatzeak.

Berri-emalleen ixiltasuna edo alde-aldeko albeste-zabaltzea.

Babes gutxiak auziak... Eriotz-epaiek... bost, amar, ogei ta amar urteko itzala...

Odol-ixurtzeak... giza-erailketak... Mendi, kale, ta elizak odol-zipritziez gorrituta.

Baia Euskalerriak ba-du oraindik arnasa. Bizi da. Negu otzean su-ondan egotea da txarra. Ozt-beratu ta kuzkurto egiten da. Otzari gogor egin bear zaio. Lanera atera, ibilli, jostatu, mendira joan...

Saiatu dira tarteka zenbaitzuk.

Lan-oporketak... gose-oporketak... diru-biltzeak...

488 apaiz euskaldunek España'ko gotzal-alkarteari zuzendutako eskutitza, emengo berri emanaz. Balona'ko 70 apaizek emengo egoera salatzen dute ta emengo burruka ta mitekin alkartzen dira. 485 Euskalerriko kristauek emengo elizaren lekora ta jokabide lotsegarriak salatzen dituzte Sinodo'ko gotzaiari egindako eskutitzean.

Izan dira tarteka itzaldi auzantak.

Izan dira gotzal-agiak... berandu... motel... bilduri... nastu xamarraz baziran ere. Ikastaloko heren babespean artuko dituztela agindu dute eliz-agiariak. Euskalerri osoko gotzaitzietako apaizek osotua dago euskal-iturji-batzordea. Gotzaien aginduz biltzen eta jarduten dira. Egnik daukate euskera batuan mezearen izulpena).

Izan da Eromatik'ere Aita Santuaren alako zaunka txiki bat ere. Baia baita guk orrek gokoiki eman zezakekeen miña sendatzeko kolpea ta ukendua ere izan da. Besoz-beso ospatu zuten Eliz eta Erri-agiariak Gazteiz'ko Katedralaren oneste-egaratzea.

Apai asko, praille asko, kristau asko burrukalari begira egon dira. Ala egon oi ziran asko leoiak beren ortz eta atzaparretan txikitzen zituzten kristauek begira ere. Jolas ona zan nunbait leioen orru ta kristauek kudduxkak entzutea.

Lo jarraitu du erriak. Zer gerta ere ez du ezer jakin nai. Israel'ko erriaren antzera jateko exertzen da, dantzarako jeiki ta emagaldue-tara makurtu.

Agur urte-zar, urte-zar. Ta alare joanak, joanak baleudek, utsa. Naiko naspil'eta txabukeri uzten diok urte-berriari. Esku-bete lan uzten diok urtegoriari.

Agur urte-zar, urte-zar... Baia ez uan errua irea... guk egin au-gur urte-zar, urte-zar. Barkatu. Lagun egiok urte-berri, urte-on egiten.

UXOLA'ri oarrez...

GEREÑO arlora.

AGIRIKO ESKUTITZA

«Uxola», euzkeltzale jatorr:

Azaroak 16, ZERUKO ARGIA'k argitaratu digun zure «GEREÑO'ri IDAZ-KI IRIRIKIA'ri nagokio.

Osorik eta aretatx irakurria dizut. Asper-itzetan ez jarduteko, labur esango dizut esan-bearreko uste dituztana.

Zure idazlan orotako zatitxo bati bakarrik ekingio ditut.

Alatsi zuri: «...ez-jakina ez zera-tenez, ongi ere dakizute itz ori asmatu zuenak «euskotar» gertatzen zala eta euskaldun izateko gogoia izan zuela. Eta «alperak» justifikatzeko itz ori asmatu ez zuelako, euskera ikasi, landu ta gauz asko erakutsi zizkigula, berria zitzion mintzalea.

Nik ezin asma dizut ain luze eskeini diguzun idazki ortan euzkeltzale-opsuetsu orren izenari lerrotxo bat bederen opo ez izatea. Utsik-utsunean eta solik-solilean ere, bere izena alperza.

«Euskera ikasi, landu eta gauz asko erakutsi zizkigunari gure idazkietan bere izena ukatzea ez al deritzazu naioka pekatu, naioka oben, naioka irain?

Euskalerri izan dituan suspertzailarik bizienetako euzkeltzale jator ori, euzkeltzaleak ain geure degen Arana Goirritar Sabiñ ixilean estaltzeak ez al dizu zure barne-mintzaren inongo zimikorik sortaritzen? Lotsa... zeren lotu? Beldur... nondi-kako beldur?

Arana Goirritar Sabiñ, izen eta abizenaz, Uxola adixkide, euzkeltzale zintzo ta urdurienetakoia izan degu.

la idazteaz ez dizu naparriak elduko. Izan orren kezkarik.

Ez gaitzen ondo jaiok bakarrik izan. Or dezakegu ondo azial izate ere. Euzkerak izan dituan euzkeltzale jator eta opsuetsuak beren izenez alatu eta, era batez, merezi duten bestean goratzeko esker-on eta kemen ere bezagun orok gurekin.

Eta... orratik idazkitxo au orrenbestez amaitutzat jo detan uen on-tan, ezin etsi izan dizut orrako beste itz-zirindira batzuei oarririk egin gabe ixilik lotu. Kolkoan, lertu gabe, gorde al izateko, nabarmengia ote diran zaizkit iduri. Gereño'ren itzak ditut arlora.

Onako ori irakurtzean: «Txillarde-gik» esaten dau bere liburu batean, eta arazoi aundiarekin, «euskotarra» itz hori madarikatu behar dogula. Itz hori asmatu da euskera ikasi nahi ez dabon gizon alperak justifikatzeko. Ez doguz behar «euskotarra», euskaldunak bano.

Ixturaz, guzti ori idazterakoan, ez diozu zure eskuari dar-dar aundirik soma ez eta zure esan-gureari idazte eta komeni ere uko. Orreala ondo, Gereño! Gizon tinko, berean zut, zuten eta egial borobil esaten dituan gizonak begiko eta gogozko ditut nik. Ortan ez dogu eztabaidarik. Ori, baiña, ez dizut orain esku-arteko arlo. Besterik dogu jardun-aldi.

Zuk, Gereño, ba-dakizu jakin euskera egokiago erabiltzen, itzak jatorrako algar-josten... euskeraz idazten, alegia.

Gure mintzairak, adixkide, beste

IZKUNTZA-IKASTETXEA TA EUSKERA

Gaurko Bilbo'k aurrerapen aundi-ko Izkuntza-Ikastetxea estraiñatu du. Munduko maila goetean antolatua ala ere. Baia, ai gure zori malkurral... Ikastetxe orretan, ain zuzen ere izkuntza bai giza kontuan artu. Izkuntza ori, gure etxeko-etxeko izan da: EUSKERA.

Ikastetxea sortzekotan zala, asmo ta amesak ugari egin dira, gure izkera zuarra gintzat artu ta beste izkuntzen artean erakutsia izan zedin. Borondate oneko asko tartetu dira orotariko; baiña azkenean, orotariko dirurik etzegola ta gure EUSKERA atean ginditu ta sartzeko.

Au ere ba da... Españia barruan, Euskalerriak kanpora Euskal-Irakaskintza antolatua degu; erbeste atokotan ere, gure izkuntzak, bere irakas-Alkai iriak dauzka; ta Euskalerri barruan, onen motz gelditu gero: auzoko izkuntzak erakutsi ta etxeko atzerpe gabe utzi degu.

Orainzue zan, ala ere, sasorik egokiena, gure Euskera aintzat artzeko. Gobernuaren Liburu Zuria ta mintzaren itzak, amaren izkuntzen alde or zuden giro ora sortzeko. Antzintea ta gure denbora elkarrekin nola etorri diran jakiteko, onen egokia degu Euskera. Beste denbora zaarretako lokarri guziak galdutxo baitizugu. Ta Euskerak argi ditakela kontu oiek eta abar, entzun izan diegu jakintsu eza-gu-nei.

Utsue ori norik bete dezake gure artean?... Len bete izan dituzten gure Diputazioak... Aspaldi, eratu zuan Bizka'ko Aldundiak Azkue zanak bere ardurapean izan zuan. Euskal-Irakaskintza. Geroa Euskal-Diputazioak antolatu zuten Euskaltzaindia. Eziera ta Jakintzako Ministeriaz ere azken aldi onetan, alde guzietako amen-izkuntzak babestu nairik eman dizkigu zenbait aukera.

Deustoko Unibersidadaren ere Euskal-Alki bat jarri nai izan zan; baiña kontu ori ere txoritari joan zan. Euskaltzaindiaren berrogeta-margarren Urteburua ospatzen izan ginauen, Bizka'ko Diputazioi Lendakariak Kondairi, Legedia ta Izkuntza atzeritzen.

Geroa ere, orainzue Diputazioan aintatu izan da onelako zerbitu. Beraz, odo pozik ikusiko genduke, Bizka'ko Diputazioa, asmo onen ori berbesten, eta bere ardurapean artzen. Gure Euskerak orrenbeste ta gei-gio ere merezi du.

E. N.

KONTUTAN HARTZEKOA

Belgika'ko erresuman bi herri nagusi daude: frantsesez mintzo diran waloniarak, eta nederlandez (holandez) mintzo diran flandretar edo flamenkoak. Gutxi gora-behera, heren bat ari da frantsesez, eta bi heren nederlandez. Brusela, denon hiriburua, nederlandezko barrutian dago: inguru guzi-guzian nederlandez mintzo da herria.

Baina Brusela, denon hiriburua izaki hain zuzen, Belgika'ren oztopo-hari bihurtu da. Alde batetik, bi hizkuntzen paretasuna teoria hutsa da Brusela'n: bruseldarrak, nahiz askotan flamenkoak ezagutu, frantsesez mintzo dira gaur kalean eskuarki; eta jatorriaz eta deituraz flandretarrago izan, eta nahiaz eta bihotzaz frantsesago agertzen dira. Brusela'ko flandretarretan egiazko bihurteta bat agiri da: bertakoak hausti, eten, egin nahi dute, nederlandezko etnikatik. Orain dala 50 urte, halere, rusela'n nederlandera zan hizkera nagusia, nahiz garai hartan administrazioa osoki frantsesa izan.

Bestetik, Brusela belgikar guzian hiriburu izanik (bai administrazioari dagokionez, bai ekonomiar dagokionez ere), imigrazio handia gertatu da. Walonia'ko ikatz-miak, jakina da-nez, gain-behera doaz; eta waloniar askok Brusela aldera jotzen du lan bila eta etxe bila azkenik. Imigrazioak eta administrazioak bide bere-tik jo dute, eta Brusela frantsestu egin da erotik.

Legeak, ordea, bi herrien paretasuna nahi du Brusela'n. Areago: flandretar abertzaleek Brusela lehenengo egoerara eraman nahi dute, lotorritziko eta orain dala gutxi arteko hizkuntza nederlandera baitzan («Brussel vlaams»). Brusela, flamenkeraz, lertorako gero eta ugariago dira flandre derak.

Gobernuak ez daki nondik jo. Belgika federalismora doala gauza nabarmena da; eta bidezkoa ere bai, ez baitago belgikarrik burokrazian baizik; Belgika'n waloniarak daude, eta flandretarrak daude. Aspaldi-detik, «asmo» da hau. Belgika'ko hiru partidu nagusiak halaz ere, ez dute «federalismo» hitz hori entzun ere nahi, ere gutxiago esan. P.S.B.koak (sozialistak) dira puntu hortan behar-bada itsuenak eta kontrakoena. «Hogeita-zortize Batzordea» azkenetan dago egun hauetan: Brusela'ko arazoa nola konpondu ez dakite, nahiz dagoeneko flandretar abertzaleak «Batzorde»-tik aldeginak izan (28atik 25-etara pasatu da «Volks»-koak joan ondoren).

Belgika'ko erresuma, askotan bi herrien arteko alkar-aditzearen ikusgarri gisa aurkeztua, krisi larritan dago; eta edozein momentutan ager ditek «impasse» guzizkoan. Flandretarrak eta waloniarak inoiz baino etsaialago agertzen dira, algarandik inoiz baino urutiago. Belgika'ko gobernu bera inoiz baino ahalago eta kolokago.

Mila xehetasun aipa litezke. Batzuk farragarri ere iduritu litzazkio irakurleari. Bat edo beste al-patua dut dagoeneko kaseta hontan. Bijoaz beste bi nere gaurkoan.

Brusela'ko Irrati-Telebista (R.T.B.) ba zuen orkesta bat; aurrerakoan bai izango ditu. Aste hauetan, eta ha-maika eztabaldaren ondoren, erdi-beti egingo dala dirudi: baina walonia izango da, beste flandretarra.

Harrigarriago gerta dakioke irakurleari «Carte d'identité» deritzan hortaz erabaki dana. Brusela'ko jendea, teoriaz bimitzoduna dan ezker-ko, bruseldaren paperak bi hizkuntzetan egiten ziran aurtan arte; dana aurki zitekean bai frantsesez eta bai nederlandez lerro bakoitzean, er gertatu da. ordea? Ofizinetan eta gainerakoetan, paperak ikusi soliaz bederen, esan zitakela, jakin paperen jabea flamenko zan ala «francophone» zan. Hortatik antz oker gertatu bide da: flamenko askori, frantsesez egin zaizkio galderek; eta frankofono askori, alderantziz, izenaren itxura dala-ta, nederlandez hizketan hasi... Euskal Herri'rik hau neurtzerik ez dago; alegia, noraino-ko afruntak diran huts horiek. Gaurko Belgika'n hutsgegie horiek sutan jartzen dituzte bertakoak, aski da sarritan (ez da ipuin bat, sinistuta egon!) frankofono bati flandretar bat-kale baten berri nederlandez galdetzea, harek erantzun ere ez di-zaion, edo-ta, jainaren ganean, bide okerretatik lekutara bidal dezun!

«Carte d'identité» horiek, beraz, hizkuntza bakar batez egingo dira orain: dala frantsesez, dala nederlandez. Paperen jabeak hautatzen du hizkuntza, eta istilurik ez alde hortatik.

Beste alde batzutatik bai, ordea. Bruseldar gehienak frantsesko pa-perak eskatzen ari dira. Nola era-mango nederlandera jende hori? Nola joango «bertsonaren libertate-aren» kontra? Frankofonoen aho-tan (eta beren buru dan Rospolus ja-yaren ahoan) aipatzen daz hitz al-dagabea «askatasuna» da. Gauzak zergatik dauden beren hortan ber-din zale waloniarrei; baina oso go-gongarri iruditzen zaizkie flandre-tarrei. «Frantsesek» onartat ematen dute gaurko egoera, eta «nazitizat» ebatzen dituzte flandretarrak. Hau-uek, aldiz, «frankillon» deitzen di-tuzte haiak («xaxi-frantsesak»), eta Brusela indarka frantsestu dala ez dute ahaztuzeko asmorik.

«Europa'ko Hiriburu» dalakoan za-tiketa guztizkoa da. Bi etnia alkar-ean ondoan eta anakiro bizi ditezke-la esateak ez du funtsik; datozela us-te hortan daudenak Brusela'ra. Ala batak beste zapaldu, ala algarandik berezi. Hau da Kondairak erakus-ten duena. Hori da Belgika'n eta gu-re herrian garbi baino garbiago da-goena.

ertaera horren gain nahi dan teo-ria eraki ditek.

Baina teorik ez dira deusik erre-a-ldeareni ez-klusia eginez osatzen diranean.

LARRESORO

ELEIZ BARRUAN PRESO

Bost gizon, berak naita, Eleiz barruan preso... Urrillaren ogei ta zazpian Palaiseau'ko Eleiz protestanteant sartu dira... Azaroaren seian, an jarraitzen dute... Geroko berriak ez det. Ez dira nor nai bost gizon okei... Frantziako tekniziar-kintsu bana banaokak. Sada'y'ko Centre d'etudes nucleaires'en ja-kintsu argienetakoak... Bost gizon jakintsu eleizan preso eta ezertxo-jan gabe... Gose oporketa dagite... Ur utsa'ekin.

Gose oporketa... Eleiz barruan... sei jakintsu... ZERAGATI OTE? Centre d'etudes Nucleaires ezta nola naiok lekua. Frantziako gizon burtsuak teknikari ziditiek an da-gite lan. Jakindurizko land'eren artean ordea bearezkoak dituzu beste lan apa eta umilik: Autak ken-du, lantegia txakundu, garbitu eta ubar. Lan apa onetan irureun eta berrogei ta amar emakumek aiarduten. «Femme de menages» zeritaz-ien.

Egun batean, dirua aurreratu bear zalata, ifuengo alkar izketa gabe, emakume langile apaletatik eun lantegitik kanpora jaurtiki dituzte. «Eun emakumetxo lanik gabe utzi? Lantegitik kanpora txakur ba-ten antzera jaurtiki...? Euren al-dez aurretik izketauta gabe...? Zuzen-gabekeri izketauta... Injustizi batzeldu. Emakume oek berriro lanera, edo gu aiekin batera kanpora». Centre d'etudes nucleaires'ko bost ja-kintsu mintza dira orrela. Eun emakume erakurri lantegitik kanpora gelditu dira. Bost jakintsu protesta-lari ez dijoaz lanera.

Palaiseau'ko Protestantean eleizan bost jakintsu preso... oporketa bi-

(10'garren orrialdean jarraitzen du)

Zeruko Argia

(Carlos III, 22 - Pamplona)

- 1.—JABEA: Napparro-Kantauri ta Arago-ko Kaputxinoen Probin-tzia.
- 2.—ZUZENDARIA: Miren Jone Azurza Ariste-gleta.
- 3.—KONTU-ZAITZAILEA: Agustín Ezeiza Iturriza.
- 4.—DIRUTZA: Azaroaren 30-an egindako diru-kontaketan, ZERUKO ARGIA'k 93.559,02 PEZE-TA ZITUAN.

ARPIDE SARIA: (1970-rako) Barruan ... 215 pezeta Korreo batasu-netako errietan. 265 • Atzerrietako bes-te errietan ... 285 • Aidez Aurrez galdetu. Salmentan (Ale bakoitza) ... 5 pezeta

IBIRIAGAKO ALEX

NAZIO ARTEKO SALEROSTEAK

Datorren urtean, 1970'ean, beste urte sail bat asiko dugu, 70'een amarruteak, igaro diran amarruteak, 1960'tik 1969'raño igikorak, oso ospetsuak izan dira. On onak izan ez badira, txarrak ez dira izan, Jainkoari eskerrak eta gizadiak egizko aurrerapen bat egin duela esan dezakegu.

Guk, emen, bakarrik aitakotako dugu nazioarteko artuemanen aurrerakadak eta ori ikusteko lauki au idazten dugu:

NAZIOARTEKO SALEROSTEAK AZKENENGO 10 URTEETAN
(Dolarrek milloika)

Urte	Saltzeak (fob)	% Geitzeak	Erosteak (cif)	% Geitzeak
1960	112.300	12,0	118.600	12,0
1961	118.300	5,6	124.600	5,1
1962	124.800	5,2	132.500	6,3
1963	138.000	9,0	143.500	8,3
1964	152.700	12,3	160.800	12,1
1965	165.400	8,3	175.100	8,9
1966	181.400	9,7	192.100	9,7
1967	190.500	5,0	201.800	5,0
1968	212.900	11,8	224.500	11,2
1969	232.500	9,2	245.500	9,4

ITURRI: I. M. F.

Urtero, nazioarteko salerosteak geitu egin dira. Geitze onek ezaugarri onenentariakoak bezala artu bear duguz. Ezaugarri oiek esan nai dute, etorkizunean ere gauza berdiña gertatuko dela.

ESPAÑIREN NAZIOARTEKO SALEROSTEAK

Españiren salerosteak, azkenengo amar urteetan, geitze audiak euki ditu. Zoritxarrez, geitze oiek alde batean auziagotako izan dira, erostearen aldean. Saltzearen aurrerakadak atzerago gelditu dira, bide erdian gelditu dira, gure saltzeak gure erosteen erdiak bakarrik dira.

Era ontara tarte aundi bat egiten dugu urtero, aurtan 2.000 milloi dolarrekoa.

Uts aundi onek buruaste asko sortzen dute. Uts oiek kentzea edo gutxitzea oso zaila delako.

Ona emen gure 10 urteko salerosteen igitzeak:

ESPAÑIREN NAZIOARTEKO SALEROSTEAK AZKENENGO 10 URTEETAN
(Dolarrek milloika)

Urte	Saltzeak (fob)	% Geitzeak	Erosteak (cif)	% Geitzeak
1960	726	44,9	722	-9,2
1961	710	-2,2	1.093	51,4
1962	736	3,7	1.570	43,6
1963	736		1.955	24,5
1964	955	29,7	2.245	14,8
1965	967	1,3	3.004	33,8
1966	1.254	29,7	3.574	19,0
1967	1.384	10,4	3.456	-3,3
1968	1.590	14,9	3.498	1,2
1969	1.803	13,4	3.850	10,1

Gure salerosteen utsak asi ziran 1961'garren urtean: 383 milloi dolar. Urrengo urtean uts ori auziagotako egin zan eta 1965'garren urtean 2.000 milloi dolar baiño auziagotako eta gaur egunerarte, urtero, 2.000 milloi dolarreko tartea egin dugu gure salerosteekin.

la urte berriak giro egokiagotako eskeintzen digun.

S. LARREA

FUNCOR, S.C.I.

BENETAKO BASERRITARRAK BEAR DITUTZEN MAKINAK

BIRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

EUROPA'KO AUERRERALEDEUN'K ONEAK,
AMENGO NEKAZARIENTZAT.

ADI TA OROI EZAZU

FUNCOR

AZKAR BEZIN ONDO

ELORRIO

Viscaya, 114

◆ Kalifornian beltzen eta Espainiaren Seme - Alabak bereizketa azpian daude.

◆ Jakiñeko eskoletan bakarrik artzen dituzte

John Cornelius Stennis senatoreak gauza bizi bat salatzen du. Anek dienez, alde aretan bizi diran 613.074 aur gaztel-izkuntzakoak, beltzak bezelare bereizketa daude lenengo ta bigarren irakaskintzako eskola batzuetan bilduak.

Stennis Mississippi-Estaduko senatore demokratik da. Oñek, anglo Senatuaren aurrean espainiar-izkuntzadun aurrean zerrendak erakutsi ditu. Aietan garbi agiri da, Kaliforniako uri askotan, izkuntza ori duten aurak, oso ikastola gutxitan bilduak dauzkatala.

Los Angeles'ko urian, esate bate-

rako, 48 ikastolako kontua atera ta au agiri da eskola oietan 65.877 aur dituzte, ta oietatik euneko 0'09 bakarrik dira beltzak edo espainiar izkuntzadunak ez diranak.

Fresno'n beste kontu au ikusten da: erri aretan 1.261 aur dituzte eskoletan. Auetatik, euneko 93'9 aur, zortzi eskoletan bilduak dauzkate. Auek, mejiakarak dira, Espainia'ko izkuntza itzegiten dutenak.

Stennis senatoreak, bere esan oin, au egizatu nai du Ipar-Ameriketa barruan, Mississippi'ko Estadutik kanpora ere, ba dirala beste Estadu batzuek, bereizketa egiten dutenak. (Efe).

Espainia ta Sahara'ko lurren askatasuna

Nazio Batuetan, beren buru ez-tiran erlialdeen Laugarren Batzordeak onartat eman du erabaki bat. Erabaki orren bidez, Espainia'ri au eskatzen zaio: lenbailen asi dedilla Sahara'ko eskualdean «referendum» bat prestatzen. Erabaki orren alde eman dute beren botoa, 89 erri. Erabakiaren kontra ezta iñor atera; baiña zazpi erriakook, botorik ez dute eman. Auek, Australia, Frantzia, India, Portugal, Sudafrika, Estadu Batuek eta Espainia izan dira.

Pines'ek itegien du Espainiaren izenean, esanaz: «Espainia, sahara-tarren gogoa errespetatzeko prest dago. Eskualde ura pakean bizi da, ta anglo biziagunak bakarrik erabakiko dute noizko nai duten beren buru jabetasuna».

Pines'ek berak esan digu, Sahararrak beren ordezkariak dituzte.


la anglo politika ta diruketa sailletan. Eta ordezkari oiek bear bezela aukeratuak dituzte.

Marruekos'etako ordezkari dan Benhina jaunak ere, itegien zuan bilera orretan. Oñek esan duenez, Espainia'k, lengo bere jokaera aldatu egin du, ta 1967 ta 1968'garren urtetako erabakietatik atzeratu egin da. Orain, dio berak, Espainia'k ezta Sahara'ko lurrik askatu nai.

«Gibraltar'ko auzia ta Sahara'koa batean atzeratu ditu Espainiak esan zuan Benhina jaunak. Jokaera onek ez gaitu bat ere arritu».

Au esaterakoan, Espainia'k Portugal'en kontrako erabakirik ez duala artu nai izan, adierazi nai zuan.

—Onela bukatu zuan Marruekosetako ordezkariak: «Oraingo boto onekin, Espainia'k urtetan iritxi zuan izena galdu egin du». (Efe).



«La Gaceta del Norte»k azaldukoak marrazki onek adierazten dunez, esku-alde ortatik irten ziran presoak.

Amabost presuk iges egin dute Basauri'ko kartzelatik Amar «politikoak» ziran

Orra gertaera arritzekoa... Basauri'n dago Bizkaia'ko Kartzela Nagusia Larrinaga'koa galdu zan ezker. Notatan gertatu da kontu au?

Dirudienez, lur-azpiko zortzi metro luzeko bide bat dago kartzelatik artan. Presondegia jaso zanean, alperrikakoa zala ta bertan bera aztua gelditu zan, nubaiz.

Ortik atera dira amabost preso iges egiñak. Ortarako, gabeko zortziretatik amarrak arteko bitartea artu dute. Ordu orretan sukaldeko eskorta edo patiora atera ziran, arlosa bat jasota. Lurpeko bideak etzuan zailtasunik, eta errez iritxi ziran tunelaren ertzeraino. An, kanporako zulo bat egin zuten eta —kaixo motel!— or joan dira bakoitza beren ezkuta-lekura.

Iges egindakoetatik amar politikagatik espetxeratuak ziran. Iges egindakoen artean ziran ere, kartzelako sukaldaria ta egurgillea.

Izenik ez da zabaldu oraindik, eta poliziaren lana errezteko, guzia ixilik gorde da. Bereala asi dira erri-zaifak iges egindakoen atzetik lanean.

(La Gaceta del Norte)

LABUR

AUZI-MAUZIAK

Auzitegi Nagusiko Bigarren Gelan aztertu-berri dute Jose Migel Frantzisko Azkarate Intxaurren'ko, Anjel Unzueta Otxotorena'k eta Jerardo Suarez Arias'ek «Erri-Zuzenbideko» Auzitegiaren kontra agertu duten eskabidea. Auzitegi onetan, iru mutil auek urtebeteko kartzela-zigorra artua zuten, agerpen paketsua etzan batean tarteko izan zirala-ta.

Epai aretan esaten zenez, iru mutillok, Donostia'n, 1968'garren urteko garagarriaren 26'an ibilli ziran dea-darka, beril bat iraunka ta poliziarren esanei gogor egiñaz.

Epaituen aldeko letraduak adierazi du, zigortutako gazteok agerpen aretan ibilli ziranik eta oker oiek egin zituztenik, ezala iñola ere probatu; ta eman zaizkien zigorrak, oietako okerrak aundienari dagozkionak dirala. (Cifra).

BERRI GEZURTATUA

Cifra, aientziak Soria'tik esaten digunez, uri artako presondegiaren lotua ta bilatua izan dala, Manzanas poliziaren itzaillea, Zabaldu da. Berrri au ez omen da egia. (Cifra).

BILBO'N ESPETXERATUAU

Bilbo'ko Diruketa-Irakasguko iru ikasle kartzelan sartu dituzte. Legez debekatua dagoen elkarre bateko lagun diralako, sartu omen dituzte. Espetxeratuak, auek izan dira: Julio Alberto Kamarena Lazirikoa, 20 urtekoa, eta Ciudad Real'go semea. Maria Luisa Pinedo Goikotxea, ogei urtekoa bilbotarra, ta Erroman Lukin Juaniz, 24 urtekoa ta Arellano (Naparroa) errikoa. (El Diario Vasco).

SOLDADUZA LEGEA BERRITU EGIN DUTE

Gobernuko Lendakariak erabaki duenez, Soldaduzko Lege Nagusia aldatua izan da. Agindu au, Estaduko Boletin Ofizialean azaldu da.

Lege berriak dionez, soldadu-izen-degiaren sartuak izango dira, urrengo urtean 19 urte beteko dituzten guztiak. (Europa Press).

IRUN ETA BILBO'TIK MADRILLERAKO TALGOA ORDUZ ALDATUA

Irun eta Bilbo'tik Madrillera artean dabilen Talgoaren orduak one-laldu aldatu dituzte: Irun'dik 15'45'an atera. Donosti'tik, 16'02'an irten. Gazteiz'tik, 17'37'an irten. Bilbo'tik, 16'25'an irten. Madrillera 21'50'an iritxi. Madril'dik, 16'10'an atera itzulean. Burgos'era, 18'55'an iritxi. Bilbo'ra, 21'40'an iritxi; ta Irun'era, 22'06'an iritxi.

Tomas Eizmendi'ren Jaietxea

Zumal eritrik metro gutxira. Ibai ertzean par-irriz, etxe polit bat zure zal dago euskal kutsu zoragarri. Arrai, barazki, aragi eder; nai dan aukera janariz, jaietxea au bein probatzen [duna] laister azaizten da berri.

RESTAURANTE TOMAS EIZMENDI

Curva de «Chiqui-erdi»
Tel. 86 13 90 ZUMAYA

HERRIAK ETA GIZONAK

ZERTAN GIRA IPAR-ESKUAL-HERRIA-N?

Ipar Eskual-Herriak hiru probintzi: Lapurdi, axenabara eta Zuberoa. Hiru arteen 201.500 bizilagun edo jende baizik ez dituzte. Berrehun mila horietatik, ehunarendako berrogoi ta amazapi —%57— bizi dira kosta aldean. Beraz Ipar Eskual-Herri-ko jendearen erdia baino gelago, Endala, onibane Lohitzun-en, Miarritze, Angelu eta Baiona hirietan dizi dira. Gainerateko %43-ak baserrietan bizi dira.

ZERTARIK BIZI DIRA?

Beste toki gehienetan bezala, hemen ere jendea bizi da, industriako lanetik, laborantxatik, komertzio, bulengo lanetik, arraintzatik eta etxegintzatik...

Eskualde guzietz badituzte zoinak beren buruhausteak, problemak. Gure eskualde huren problema larriena, lan eskasia da. Lan gabezia hori hel- du zauku, industriarik ez dugulako. Lantegiak aise gutiagi ditugulako.

Hemen ditugun lantegiak konda erre- Maule herriek daukate. Hazparne- k baditu zortzi zapata lantegi eta 530 langile bakarrik! Maule-ko herri- z 21 lantegi eta 1935 langile baizik erl! Behar da erran hiru probintzi ho- tarik, langile ainitz badabilala Boka- le inguruan diren lantegietan ala nola: Turbomeca-n, Socadour-en, Sci- ban, SATEC-n, Ciments de L'Adour- en, Fertilaour-en, SOFRA-n, Celay- en, ACÉM-en, FAPA-n eta berte zon- bait lantegietan.

iGsa guziz, ainitzez lantegi gutiegi dugu!

Laborantxan bizi dira oraino be- rrogoi bat mila eskualdun. Gobernu- ko paperrek ekarria ten biharko gertakizuna hau da: hemendik amar urte barne, 40.000 laborari horietari 30.000-k laborantza utzi beharko dutela. Ez da gauza hori berez gal- ki dagoena, toki guzietan laborariak edo nekazariak ingituz doazi. Bainan gaizki den gauza da, 30.000 horietari 20.000 bederen, arrotzen herrie-

xak dira. Aipatuena Hazparne eta tara joan beharko dutela lan bila. Gure eskualdean, laborantza, uzten dutenak, ez dute lantegietan sartze- ko biderik, Gipuzkoan, Bizkaian, Ala- ba-n eta Nafarroa-n bezala.

GURE ESKUALDEKO BI GAITZ

Ipar Eskual-Herriko hiru probintzi hok, bi gaitz haundiz joak dira joan diren aspaldiko urteetan. Eta huna zoin diren bi gaitz horiek: Lehenik gaitz-husten ari dira eta bigarrenik arrotzez betetzen!

Lehenik beraz, gaitz-husten ari dira. Orak ere, urtero bi milako bat gazte badoaz gure herrietatik, Paris- rat, Bordelarat, Tolosarat edo Ameriketara. Eta joaten direnetik gehienak gazte eskolatuak dira. Gure Herriek hasten duten gaitzia oberena, ezin biziak edo bizipide ne- keak bortxaturik badoazi!

Bigarrenak, gure herrietarik joa- ten diren herriek, jende zahartuez ordainduak dira. Erran nahi dut, ga- urko egunean ez dela herri bat, arrotz jenderik ez duenik. Ez dela herri bat nun arrotz jendeak etxe bat edo lur eremu bat ederra erosi ez duenik. Gure etxeak eta lurak arrotzeri saltzen ari gira... hemengo eskualdunak!

Bestalde, jiten zauku ere jende arotz langilea gure itsas-herriko hi- rietara. Lanik ez da eskualdunenda- ko, bainan beharba bizpahiru mila espainol eta portuges langile ez es- kolatuak eldu zaizkigu egunero. Be- reziki etxegintzan ari dira lanean.

Horra laburki gure buruhausten berri: Agian bestaldi batoz ere, uka- nen dut zuei buruz idazteko parada.

GEXAN LANTZIRI

Vietnam eta Ponpi-
dou-ren beldurak

Frantzia-ko hogeit tamabi organiza- zio politikan eta sindikalak Azaro- aren hamabostean, Vietnam aldeko manifestazioak egiteko asmoa zu- ten, USA-n egin diren manifestazio- arekin elkartu nahietan eta Ponpi- dou-ko debekatu egin zitun. Nola Ni- xon-ek utzi bai eta Ponpidou-ek ez!

Ponpidou k hiru arazoi eman di- tu: a) Vietnam arazoaren ibenean, komunista eta ezkeriar arteko ezta- baldak berriro bizitu egingo zirela. b) Munduak badakila nor dan fran- tzesen iritxia gerla honeri buruz eta momentu hontan ez zegoela mani- festazio beharrik. c) Azkenik, eta hau zela arazoirik garrantzitsuena zion Ponpidou jaunak, Frantzia autu- tia izan zela USA eta Vietnam ar- teko elkarhizketa hauen leku bezala, eta neutral mantendu behar zela ez bat ez bestearen lana bortxatzeko.

Argi dago Ponpidou-ren arazoi eta mifia, komunista eta ezkeriar artean piztu ditezken eztabaidak direla, eta horregaitik liga komunisteko barreun mihiante defenitu zitun.

Gainera Ponpidou neutrala izate- agaitik ez da beharrezkoa herria, ala izatea, herria Vietnam alde baldin badago; zergaitik ez utzi Vietnam alde bere abotsa altxatzen?

ANTON SANTAMARIA

ITALIA'n

Polizi bat hila, hiri haundi gehi- enetan bortxadura izigarriko ma- nifestazioak, eta gero Milan bere hamalau heriotz eta ehun herituekin

Brenner-etik Syracuse-ra eta Tu- rin-en, Nagoles-en, Palermo-n jen- dearen bortxatutara azaldu da eta beldugarria da manifestanteak, azal- tzen duten oiztasuna gertatzen ari- diran trajediaren haurrean; beren ekintzetan geldirik gabe jarraitzen dute. Galde egin egin zaizenean zer nahi duten: DENA NAHI DUGU, erantzun dute.

Errebindikazioak ez dute senti- durik, nahiko ibili dira eskuan eta gaur eskubiaren konserbadurismoa- rekin, eta ezkeriarraren legalismoa- rekin nazkatutik daude.

MIKEL MENDIZABAL

ESKOLA IPUINAK

☐ — Xapaburu bat ikastolan ...	75 Pta.
☐ — Nire adiskidearentzat eskutitza ...	75 Pta.
☐ — Guziok ditugu senide txikiak ...	35 Pta.
☐ — Jolas artean ... liburu bat ...	35 Pta.
☐ — Ipuin-sorta osoa ...	180 Pta.

Bidaliz izkidazu X duten liburuak, hartzean ordaintzekotan.

Izena Herria

Zuzenbidea Argitaldaria. — Apartado 44. — A L G O R T A (Bizkaia)

S E I I P U I B E R R I

(Bizkaia, Gipuzkoa, La burdi ta Zuberoaz)

- SAGUTXO JAKINTSUA
- MITXIN-EN BIURRIKERIAK
- ERBIA TA APO-ARMATUA
- ARRIGARRIZKO IBILLALDIA
- SAGUTXO AUSARTA
- IKASBIDE ON BAT

Gipuzkeraz eta Bizkaeraz. On atibia-k. Lapurdieraz, Minaberri ander ehoak. Zuberoarrez, Gregorio Epherre-k.

16 pezeta emengoa; an 2 fran koterdi.

Edili-k argitaldua, Haize Garbia. Hendaia, eta Euskaltzale Biltzarren laguntzarekin.

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIA

URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
HERNANI, 4 DONOSTIA

MUEBLES
URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK
POSTAS, 46 GAZTEIZ (Vitoria)

Muebles
Inchausti

Lasarte'n dagon etxe on [batek] eskeintzen dizu ostatu, an dauden gauza zoragarriak bixitatzera prestatu. Apain, dotorez, berdifik ezta; inola ezin puskatu, MUEBLE bearez baldin [bazera] INTXAUSTI'NEAN eskatu.

Estación, 19
Urrutizkifia: 97580
LASARTE

Ainhua

Ondo jantzi nai al zera?
Zoaz «Ainhua» dendera
Jantzi apañak
Ondo eginak.

JANZKI EGINAK
S. Roke Kaleko 12'an.
DEBA'N

NORK KUKURBUKU:!!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR,ek

sukaldian

piensos
Biona

BI ALDIZ ONA

BIOTER'EK babestua

Pentsugile:

VELCIA, S. A.

TUDELA'n: Apartado 41

Urrut. 820.812 ta 820.816

NANCLARES (Araba):

Carretera General Vitoria-Miranda

Km. 12 - Urrut. G

ESTABLECIMIENTOS
ayestaran
DONOSTIA

FERRETERIA

BURNI - SALGAIK
Urbieta, 25

ELECTRODOMESTICOS RAILITE

ETXERAKO ELEKTRO-
TRESNAK
Urbieta, 27 - Isabel II, 2

LEGEZKO
ZABALTXAILEA
Aldeacone, 4

Urrutizkifia:
4300 ta 26787

LABUR

★ Ilbeltzaren lehenengo egunean pakearen aldeko eguna ospatzen da. Aita Santuak itzaldi sakona egin du pakea zer ez dan eta zer dan esanaz. «Pakea geroke etorkizunari ta aurrerapenari zai dagon gizon jabetuen egiñala da. Pakeak eragin behar du gizonen arteko progresoa eta pakeak ematen dio bizitza bikain baten erasopena. Pakea ez da bein baterako iristen dan egoitza edo beti berean geldi iraunko lasaitasuna. Oraindik pake mugetaraño eldu gabe arkitzen gera eta beti aurreago jitzeko asmatan egon behar degu. Pakeaz mintzatzen degunean ez degu nekegarritzko ta berekotasunezko imobilismorik altatu nahi. Ezta lozoroko buru-austerik, bakoitzak danen ondasunerako jabe egiteko baizik. Pakea egari izateko motibo nagusia hau da: humanidade guztiairen maitetasuna! Gero pakearen bidetan ezitzeko agintzen digu. Batez ere gazteak eskatzen da pake bidetan ez huts egiteko. Kristauen artean iritzi nahastuak arkitzen dira gaur egun pakearen buruz. Orregatik bere artaintza betetzeko teologo ta kanonistak testimonio ematen salatzeo eskatzen digu kristau guztioi.

★ Frantziako gotzaiak bere batzar nagusian erabaki zuten abenduko lehenengo igandetik hasita, liturji berria erabiltzeko. Integrista taldeak ez dute aginpidi hau ondo ikusi eta Lourdes-ko batzarretik hasita gotzaien aurka atera dira. Louis Salleron-ek bere liburuan Aita Santuari itxuskeri asko esan dizkio ta La Pensée Catholique deritzaloz aldizkarian izen gabeko teologo ta kanonistak Novus Ordi-ri hutsune asko atera dizkiote. este aldetik Montpellier-ko Confederations Nationales Familles Chrétiennes-ek gotzaiak ontzat emandako kristau ikasbidea baztertu-az egin nahi dute. Parroki askotan taldek sortu dituzte aien bitartez iskanbilla haundia ateratzeko. «Negargarria da —diote— gotzai guztiak sasidotriferia

okertura arkitzea. Olako gora berak lehenago ere izan dira beste alderdietan eta gure seme alabentzako ez degu nahi holako ikasbide lasiarik». oGtziak «proeta falso» oien kontra gogor mintzatu dira eta beren publikazioak intenzio txarrekoak dirala finkatu dute.

★ Mariano Gamo, Moratalaz-ko parrokoa Orden Publiko deritzaion epaitzeagan juzgatu dute, lege-kontrako propaganda egin duala ta. Epai honen zalaparta asko ekarri du berarekin eta apaiz-seglarak zigorkatuak izan dira bere alde manifestatu zirelako.

★ Beak eskatuta iru apaiz eta kaputxino bat irten dira Zamora-ko espetzetik. Apaizak Joseba Atxa, Pedro Ojanguren eta Joseba Miren Ortuzar dira eta Jesuitak Villagarcia de Campos-en daukaten konbentura eraman dituzte. Kaputxinoa Aita Pablo Muñoz da eta Sangüesa-ko konbentura eraman dute.

★ Ipar-Amerikako estadistikak diotenez, munduan 17.000.000 milioe iges egindako omen daude munduan. Bere familitik aparte, bere herriatik urrun, dirurik eta askotan zer janik gabe, Euneke iurugei ta hamar asiatarak eta afrikatarak omen dira. Motiboak ezagunak dira. Politikako joerak eta bizi-bide erosak izan nahi.

★ Bilbo-ko Zirarda Gotzai jaunak, bere artaintzarako amasei ordezkari autatu ditu Bizkaia barrena, orain arteko apaiz-buruen ordez. Begoña-ko gogoeta etxean hil honen 15-tik 18-ra Konziliko era-berritzea apaizentzat euskeraz izan da.

★ Naporroan Herri Apostolutzako ikas-garaia iriki da. Hasieran heun da berogita hamar gazte izan ziran eta Tabera Kardenalak esan zuenez orainarte izan dan ekinnaldi berezieta izan da.

POZNE UGARTE OLAZABAL



Il onen 5-an il zan Tolosan, 25 urte zituala. Zizu rikildarra jaitzeaz, eta Tolosan bizi zana. Iru urte barruan, Tolosako euskal ikastolako umetxoan irakasle (andereñoa) izana.

Bere senarrak Karrera ta Agirrebarrenatar Martinek eta etxeokak eskertzen diete liletan ziraneti ta beretzaz orolitu diranai.

La Estrella, 10-E

— TOLOSA

HUIN BERRI

1964 - 1969 Bilduma

Euskal olerkarien antologia.

Juan San Martinek antolatua.

AGIRRE, José M.
ALFARO, Cexan.
ARESTI, Gabriel.
ARZE, José Antonio.
AZURMENDI, Jose.
BILBAO, Antonio.
ERDOZAINCY-ETCART, Manex
ERRAMUZPE, Patxika.
ETXAMENDI, Eñaut.
GARIN, Martin.
INTXAUSTI, Joseba.
INTXAUSTI, Mikel A.
IRIGARAY, José Angel.

IZTUETA, Paulo.
KINTANA, Frantzisko Jabier.
LANDART, Daniel.
LASA, Amaya.
LASA, Mikel.
LEKUONA, Julian.
LETE, Xabier.
MUJICA, Luis M.
PAGOLA, Manex.
SAIZARBITORIA, Ramon.
SARASOLA, Beñat.
SARASOLA, Ibon.

Liburu-dendetan edo Argitaraldi ontan:

SOCIEDAD GUIPUZCOANA DE EDICIONES
Y PUBLICACIONES, S. A.

Museo de San Telmo - DONOSTIA.

ERLILIO ARAZOAREN AZTERKETA

«SANTA TERESA»
DONOSTIAN

Gai auek erabiliko dira nagusiki:

- Jainko arazoa gaurko gizonagan.
- Erijiio gertakizuna.
- Ateismoaren agerpena.
- Gizonaren erlijioja giza-alderdia.

Zuzendari:

Anton Artamendi.

Egunak:

Ilbeltzaren 3'go. arratsaldeko 6'tatill, 5'go. gaue-ra.

Diru-kantua:

Egoera 275. Matrikula 50. Izena eman:

Santa Teresa etxera —
Ulia — Donostia.
Urrut. 10054 eta 17118.

ONDO BADABILL
Otsein DA



EDAN ZAZU, INSALUS!

Gorputza ondo eztagonean eztago barren girorik, sendagail ona eskutan dezu; etzazu galdu denborik! Bein artzen dunak ezta izaten berriz uzteko gogorik, malraiko urik ezpalta sortu INSALUS BEZELAKORIK

Lizartza - Tolosa

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Donosti'tik egunero:


Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón, Iruña, Bilbao, Gaztel, Jerez de la Frontera, Gádiz, Alcantante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14 - DONOSTIA

Tefnoak.: 25.457 eta 26.987.



1.896

1.969

GUIPUZKOAKO PROBINTZI - ERATETXEA

(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearrean gure

«PRESTAMEN SERBITZARITZA»-z (Servicio de Préstamos) balia zaltze

Zure baserria erosteko edo obetzeko

Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko

Abera — azlenda — erosteko edo obetzeko


Baratzeko fruituak obetzeko

lakindean jarri zaltze Donostia'ko gure

12 ofizinetan eta Probintziako 63 sukursaletan

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL



Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyak
Ongarri ta abonak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tronak ta abar

Torrelavega'ko Perira joan etorriak.

TXERTOIA

Eguberri zoriontsu ta Urteberri ugaria, opa dizu.
Eta eguberri garaletako eskeintzen dizu:

BERRI-BERRIA: ARTE POPULAR VASCO

Egilea: Luis Pedro Peña Santiago.
Oso bikain argitaraldia, 500 marrazki baino gehiagokin apaindua.
Prezioa: 250 pezeta.

BERRI-BERRIA: ANTIXON VALVERDE (DISKA)

Abesten du: Utsa - Kontxesi-ri - Peru Gurea -
Goizean goizik.
Prezioa: 115 pezeta.

OLERKIAK (B. DECHEPARE)

(Euskeraz idatzitako lehen liburua)

Prezioa: 190 pezeta.

Bialduko ditugu gastuak libre dirala.

ESKATZEKO TXARTELA

Artu nai nuke () ()

Izen-abizenak ()
Etxe-bizitza () Erria ()

TXERTOIA (Liburu-diskak)

Armerias Enparantza, 4 - Apart. 767 - Urrut. 1-91-36

DONOSTIA

"UR" TALDEA



EZKERRETIK ESKUBIRA: AROZENA, GRAZENA, TAPIA, BIZKARRONDO

—GORAINZI liburu berria, ta nai aña sakondu gabe oraindik!
—Bere garaian sakonduko dez, gizona!
—Zuk ala uste al dez?
—Jakin! Orain begiratu besteei ere. Ta lanari ekin; zu margolaria zera, Tapiá.
—Ala egin bearko det, bai. Ta Bordari-ren liburua, trixite nagonerako.
—Orduan, nortasuna gordetzen lagunduko zizu. Artisten biotzak ere neurriak ba ditu, gero!
—Bai, Arozena, bai. Zu beti aurrera, trituri gabe.
—Biotza, sentimientua, indar aundia da. Bere neurrian, aundiagoa.
—Lantxo bat bukatu bearen nago ta gero jarraituko degu. Bizkarrondo datorikizu ta izango dez du berri prako. Ez al da ala, Bizkarrondo?
—Bai, ara azkeneko azalaketaren argazki bat. Ala diote biali dutenak: nik egindako lanak, gogo-jardun garaiean eginak omen dira. Oraindik! Ba omen dute zerbait; ezagutari bat, alako zerbait omen dute.
—Tapiá alde egin naiean, Arozena umore onean; ta, alako batean, Grazena; ara UR talde osoa. Zori oneko Grazena!
—Orain jakingo degu azkeneko biotz ikarakin nora dijoan Grazena; ez al da ala?
—Nai dezuna esango dez du (dio Grazena); ara:
BIDEAK BIZI NABE,
ERTZ ZIURRIK EZ DAUKEEN
BARRUKO BIDE LUZE
ELBURU GABEAK
BIDEAK ILGO NABE.
Ezagutzen al dezute ELORRI? Liburu orren zatitxo au gogoz ikasi det. Ta ba noa, nere bidean. Gero arte...

OTALORA

EUSKERA EGUNA CARACAS'EN

Atlantiko bastaldeko lurraldeetan gabilzanok ere gogoa ditugu beti sorterriko bizitzantzuak eta areago euskerari buruz dagozkienak.
Aurtengo Euskera egunari itxas-ta bezela «Xenpelar» bertsolari izanaren eungarren erlotz-urteurren dugularik, Abenduaren 5'garrean, Caracas'eko Eusko Etxean, ospakizun eder bat izan da. Onatx egitaraua:
1. Sarrera.
2. Albizu, Balendiere; bere zenbait olerki.
3. Errenteri, Pirmin; bere aita orgoni (G. b.) zanaren olerkiak.
4. Arozena, Andoni; «Xenpelar» bertsolariaren oroitx, itzalditxo.
5. Albizu, Aita Patxi; Leizaola, Xabier eta Urresti, Jon; «Xenpelar» en bertsoak.
6. Euskerari buruz iritzi-miritzi: Galderagillie: Arozena, Andoni; Azurza, Koldo; Gomez, Jon; Olabeaga, Joseba; Otamendi, Aita Joxe Mari Urresti, Jon.
Beraz, Errenteri'n bereziki, egun oietantxe eratu diran omen-jai guzietan biotz-biotz alkartuta izango gaituzte.

A-BI

Oyal s. a.

Oyal eta eforru almagena
Paregabekoak
Bikainenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA

"EUSKAL ELERTI 69" MANIFESTU BATEN INDARREK

Idazle talde batek, orain dala gutxi, asmo batez bultzaturik, euskera ikuntzari dantza prestu bat emateko ta era berean pentsaera bat eskualdunen eskutan jartzeko erabaki bat artu du. «EUSKAL ELERTI» asmo oien serbitzuko sortu berria da ta EUSKAL ELERTI 69 (1) beste idaztien ondoan areen fruitu goiztiarra da. Izendatu dan idaztza berez manifestu indarra badu ere, ezken oharrak' argiago erakusten ditu onen eratzaleen gogua. Manifestuak, bidea sinpleki agertzeko eginak izan dira naiz bide baten eziña edo asmo berri baten erarra adierazi izan. Eratzaleak ikuntza batuaren alde joa, naiz bide mugatu batzuek artu dituzte, bide ezberdinetatik dijonentzat, antzera gogor ta emeslanikoak zabaldun, batasunaren alde joka naiz banatzele diran ofiarriak sortuaz.

Gogortasuna, gizon baten kondetazio publikoki, sinpleki ta arintasun aundienakin ematerakoan agertzen da, bestetik euskal erriko etsal edo adiskide, euskaldun edo ez erabakitze EUSKAL ELERTI-KO eratzaleak artu duten neurri ta eskubide emeslanisun txipristez itxutza dago. Izan ere, galdere egin ditzake nola euskal erriko etsien salatsaleak librerietako kristal atzean gorde ditzeken. Egia da ere, salda denean zenbait liburu ez diragla «ortodoxoak», bafian «eterodoxoak» bizitzeko eskubidea ezkeintzen duten arriskuaren gora beran izaten dala ere egi borobilla da.

Idaztitzo onak ezkeintzen dun neurrian EUSKAL ELERTI-Taren mamira jo bearra dago bai ikuntzaz-bizitzaren aldetik, bai pentsaera aldetik. Bestetik EUSKAL ELERTIA amairu idaz-lanen bilduma denez bakarka bakoitzaren atarketa oraingo ezika izanen delako aitatu berri diren gaitzak oraingo jarduna izanen da.

Ikuntza-bizitzaren aldetik joaz M. A. Iintxausti poetak diona arazoirik gabekoa ez da: «Gaurko proeza bakarra / herria h'kin edo h'rik gabe lantzea degu». Hori dala ta gaur egun ere itz egiegi egiten da. Hek ez du euskara erretxu edo zindiko. Hek ez du euskara batu edo banatu. Ifar-aldekoak H'erabiltzen badute ere, beren eskualdeko mintzaira ez da Horren-gaitzen besteantzoa ulergaitzago izanen. Bendinki, egoaldeko izkera ta idazkera H gabe agertzen danean ez da orrengaitzen besteantzoa ulergaitzago egiten. Beraz, H arazoa, euskera batuaren arazoarekin nausterik ez dago. Lur edotialekoak H ori eskatzen badute bere saltean argitaratzeko, ortarako eskubidea izan arren, ez du ortarok esan nai euskera biziaren bide bakarra danik eta gutxiago H'erabiltzea euskal erriaren adiskidetaz lortzeko bera bearezkoa danik. Arazoa, H'erabiltzeak euskaren alde jokatzea edo ez erabakiko ba'u, zu ondoren ez ote zitekean atera...

Idazkerari buruz, aitortu bearra dago bilduma onen eragileta bortizkia dala. X. Kintana'ren prosa aberatsa bafio aberatsagoa da ta orrek bai, euskera indartu dezakea. Bere lana sensibildadez osatua dago ta idazlearen ikusmen zorrotza bere nobela guztia betetzen du. Idazleri bezela, margolariaren lana bera gaitzen dala esan ditzake: batez ere naturala adierazten digun bezela adierazita, naiz ta gizonen deskribzioen egiterakoan eskema intelektualegink erabili izan.

M. A. Intxaustiren olerki lana poesi intelektual mailan sartzen da bafian irudimenaren indarra ez da alferrik gaitzen. Lenengo saia-erazateko ez da gutxi ta geroa itxaropenaren fruitu bete ditzeko. G. Aresti bere lumam ugarkorran egin euskera batuaren zalga ta «EUSKAL ELERTI» teatro berriaren lenengo pausok eman dirala esan ditzeko.

Ez dago denentzaz itz egiterik bafian P. Urkizuren idazkerak, bidean jartze onekin erretasun bat du, kastellanoz M. Santos'ek' artu zitun goi maila aiek bereganatzeko. J. San Martin berriro erakusten du prosa didaktiku eran euskalerriko malkuetako bat dala.

Aldeiti ontatik aitortu bear da bai, euskera batuaren alde lan bat egin dala; izkeraren joserka bakoitzari nabarmentzen zale ze eskualdeko izkeraren jabe dan idazlea, bafian danak enstiatzen dire bese eskualdeko aberatsasunak bereganatzen, bai itzen aldetik, bai aditzaren aldetik. Euskera batuaren aldetik idazti didatikoentzat neurri estuagoak artu bearko dira, naiz ta ontan ere erakustekoak egokiena agertzen dunak aurrea artu, bafian literatura mailan idazkeraren asmatzea berez da zabalgaoa ta ontan neurri estuak artzea naaste bat sortzea bezela litzake.

Ala ere literatura mailan ere idazleak beren pentsa-moldea naiz ta ez ain argi, beraz arrisku ala bentaja geiagorekin, agertzen dute ta EUSKAL ELERTI-KO idazleak ere, pentsamolde batzuek an ta emen azaltzen dituzte.

J. S. Martinek ondo asko ematen ditu euskera ikuntzaren alde dijonatu arrazoiak. Ala ere, era bakoitzeko itz-jardunen bidez, Euskera euskaldunak jaiki guztiaua bihurtzeko arriskua dago.

Euskeraz euskaldunaren egokiera komplejoa ez du sinpletu bear. Ez da aaztu bear euskera beak euskaldunaren pentsakera moldeatzen badu ere euskalduna dala euskeraren egile bakarra. Euskera euskaldunaren errealitate bakarra bezela azartzen baldin bada euskaldunen geroa arriskua jartzen da, euskalduna ta euskerarena. Ez pentsa, euskera euskeragatik zapaldua denik euskera bera euskaldunen aurka koto tresna bezela erabiltzen dala jakiniekoa da. Euskeraz euskaldun-tzat bearezkoa bada, euskalduna ta euskerak ez dute aski euskeraren salbatzarekin. Euskerak erreallitate berez ez du, euskera eskualdunen eskutan bakarririk erreallitatea artzen du. Euskeraz baliatzea ez du gizon baten lana zuzena egiten. Euskaldunak euskeraren



bearra daukaten bezela, euskerak euskerak euskaldunen bearra du.

EUSKAL ELERTIAN, euskeraz pentsa-molde asko agertzen dira. M. A. Intxaustiren lana benetan aurtaria da bere pentsakeraren zati aundi bat beintzat irakurlearen eskutan jartzen dula. Bere jor-erak euskerariaren gaitz orain aundi bat agertzen dute bere indarrak argitu egin dezaken burruka gaitz baten berri ematen du. «Derroismoa batetik itxaropen aundi batera, errex pasatzen da, olibitiki seaskara edo etsipenitiki itxaropenara bezela... kezku itxu batek olerkariaren izate osoa gutxi bera, beste zenbait euskaldunena lez, menperatuko bala bezela.

Arestik eta X. Kintanak era ezberdinetan bada ere beren pentsa-moldea agertzen dute ta beren ikuspenetik euskerariaren egokiera azartzen dute. Auentzako euskerariaren egokiera gaitz orain jende talde baten erri bakarra dirudi. Kepa, kimikoa da ta Pellore-na medikua, lenengo gaurko egun-ean bisi arren, nuntiatzeko alderdikin ze ikusia ba du ta beste gaitz jokera batuzetan naustuta dabil; Pellore-nak berria, euskalduna izan arren euskal erri bateko ondarena besterik ez dakar. Bi gizon auen atzetik dagon euskaldun jende taldea, euskalerriko egokieraren erundun bakarra egitea sinple xamar gaitzak agartzea ez ote dan gaitz bera dago. Antzerkian aazaltzen dira ere esanai aundiko bertso asko: «Gera iru lagun / askoren ezagun / benetan euskaldun / gahera dirudun...»

Ez da ez ikusten ze pentsa-molde egokia eman dezaketen olako pentsakerik. Euskera batuaren alde anategia gaitzak erabiltzen bakarrak aurrera egin ditzeko ta erria azartzerakoan errexerik aldatuaz bakarrak ibilli bearra dago. Esan bezela euskerak ez du gizon baten burruka justifikatzen, euskaldunaren serbitzuan ez dagon euskerak bere burua ta euskaldunaren gaitz dezake.

D. I.

XENPELAR MUSIKALARIA ?

ZERUKO ARGIA-ren 354 zenbakian, Basarri adiskideak kezka au azaltzen digu:

«Xenpelar'ek oso doñu bereziak erabili zitun geroztik urte luzetan entzun ezitugun doñuak. Au da nere galdera: berak sortutako doñuak ote ziran?»

Kezka berau beste batean ere entzun edo irakurri diot Basarri-ri be-rrari.

Xenpelar bertso-doñu asmatzalel Arrigarria, benetan.

Baian ba du ortan Basarrik lagun bat, eta ez nolanaioa. Aita Zavala, oker epanago. (Eta oker banago, parkatu, don Antonio).

Aita onek ere, Errenterian emandako itzaldi batean, galdera berdin-tsu egin zuan: Doñuak Xenpelarrek asmatutakoak al dira?

Don Antonio eta Basarriren kez-kek nai ere kezketan jarri nautela aitortu bear du, Xenpelar, bertsolari bikainaz gahera musikari de-egu, melodiaz-asmatzalel. Arrapazak. Egia esan nik beste aldetik jotzen

nuen. Nere ustez, ezagutzen ditugun Xenpelarren doñu geienak dantza egiteko doñu ariñak dira, denbora artako opereta ta zarzuelen doñuak, gaur illupetan lo eta zearo ahaz-tuak daudenak Doñu orietan nik ha-banerak, vals eta olako doñuak ikuste nituen. Baian musikari ez naizen ezkerro, lerro auk idatzeko (eta txirrista ez egiteko), zuhurki Euskeraz mairuaren iritzia jakin nai izan du, eta «Zigzag» egilearengana joan nait, Aita Zavala-rek «Xenpelar» biografi eder batekin eskuan.

Euskeraz jaunak liburuak dakar-kin doñu batzuek estudiantu ditu. De-nak ikusteko astirik ez du izan, ba-ñan bere iritzi baliotsua (eta pro-bisional) emen azalduko du.

Doñu batzuek, gutxiak, jator eta zaharrak dirudite, naiz partituran pikta bat «modernizatuak» izan da-ere. Adibide bezela, «Iya guriak egin du» doñua degu.

Beste batzuek, eta ez gutxi, Xen-pelar-denborako doñuak diralakoan dago Escudero, nik somatzen nuen

bezela. Adibide garbia «Andre txar-raren bantak» doñuan dago. Haban-bera jatorria da. Entzun eta dantzan asteke gogoa ematen duena. Escu-derok uste idatzi du partituraren ondoan Ritmo regular de danza. Haban-bera. No vascu.

«Frantzesean ideak» doñuari janfarren kutsua arkitu dio. Donostia-ko Tambozadaren antzeko edo estilo ortako musika alai ta bro-mosoa.

Geiegi ez luzatzeko: gutxi batzuek euskal-doñu jator eta zaharrak di-rudite. Xenpelarren ritua bafio as-kuoz ere zaharragoak. Besteak, or-dea, Xenpelar denborako dantza-do-ñu arin eta arrotzak, Frantzi, Espa-ña eta Colonietatik etorriak.

Xenpelar doñu oien asmatzalea? Ez... zate pentsatu ere.

Oso atsegin izan zaion arlo au sa-konki estudianteko, beste elkar-iku-sia izan bear degula erabaki du-Escudero musikari yayoak.

AYALDE

EUSKAL ERRIETATIK

errenderi

XENPELAR URTEA

Orain ere norbait —eta arrazoi auzid— esango du: «Ba uan ordu, Xenpelar-urteko joaiaietaz zerbaite esateko...».

Ez da gure falta; guk beti bezela zintzo igorri ditugu asteroko berriak, baita «Litargi»-k 1931 gn. urtean gu-re bertsoari aundiarri jarraituko ber-
tsok ere, bainan ez dakigu zer ger-
ta dan, ez dira agertu. Norena erria? Or konpon! Goazen gu gurea, esan-
bear asko degu-ta.

Izan ere, «Xenpelar-urtea» dala-ta izan ditugun jaia bikañak izan dira,
denak, ao batez gorlatzen dituzte.

Antton Valverde'ren itzaldi xar-mangarria'rekin asi gñin, jendea or-
du bete pasean ago zabal iduki la-
rik. «Ira itzaldien gozoa eta ki-
tarraz lagunduta, Antton'en semeak
abestutako Xenpelar'en bertsoen
edertasuna...».

Itzaldi ori bera Donostia'n emate-
koa dala entzun degu, entzutera jo-
an danari etzajo damutuko. «Zori-
nak, Antton!

Andor Done 2egunez, Urnieta'ko
«Egi-Billa» taldea etorri zitzaigun,
Antonio M. Labayen jaunaren, «Cali-
forma»... jukul antzestera. Ta, jau-
nak, euren lan zalla bai ondo bete
ere. Ederki egon ziran urrietarako
eta txalo ugari jaso zituzten. Egile-
berri, Labayen jauna, teatro arloan
Euskal-Eria'n gutxi eramango dio-
na, txalo artean, jendea agurtzera ir-
ten bear izan zuten.

Oriek orrela dirala, ifloiz ere txalo-
rik jasotzen ez duna eta benetan
merzi dituna, Muebles Arozena'ko
musi jauna degu. Erredizak, mue-
bleak, teatro-jai gutzarako usteko
prest daukagun gizona. Bijoizaki
gure eskar beroenak!

Urrengo ostegunez, abenduak 4,
punta-puntako konzertoa izan gen-
du. «Zigor» operaren zatirik edo-
renak entzun genituen, bere egile
dan Escudero jaunak itzez argitzen
ziguarik. Bukarera, onek ere txalo
beroak entzun zituen.

Igandeko bertsoari-saioak berri-
neurri guzikiak autzi zituen. Basarri'k
zion bezela: «Egun aundia, zifex,
igandekoa. Errenderi'ko jai-erata-
lleak egon ditzezke gustora. «On-Bi-
de» aretoa txiki-gi gertatu izan ber-
tsolari jaialdirako. Sardu al izan zira-
netako askok zutik egon bear izan
zuten. Ezezan dantzetan aialat
exer-toki. Beste askok atera iriti ta
itzuli bearra izan zuten, sartzerik
etzegolako».

Amar bertsoari ziran gutzitar-
a: «Uztapide», Garmendia, «Ilazko-Txi-
ki», Mitxelena, «Muttin», Arozema-
na, orrotxategi, Lizaso Errenderi'ko,
Lasarte ta Xalbador.

Bertsio ederrak entzun ziralas esan
bearrik ez degu. Ura jendearen go-
zamenal Jendearen sutes, botazioz
erabaki zan da, goiz ortan bertso-
rik onena Xenpelar'eri, Garmendia'k es-
keñi zion eta Lizazazu jaunaren kopa
beretatz izan zan.

Gure ondoan zegoen batek onela
zion: «Bertsolariak entzuteagatik ba-
karrik merzi dik euskeraz jaioitela». Ez
da gezurra. Guk, jendearen aur-
pegi ta imintzioak ikusten genituen
eta gure benetako euskaldun erri-
aren gozamenak auzit postu gñin.
Jai-aurte ta tartean, Aita Zabela'k
Xenpelar'eri buruz argitaratu digun
liburu bikaña salgai egon zan eta
jakin degunez saltzera ekarri zituen
liburu guztiak saldu ziran. Merzei
ere bai; Aita Zabela'k egindako lana
ez diogu bear bezela eskertuko Xen-
pelar-zaleok.

Asteleneko jaiak berriz, Xenpelar
li zaneu urte-muga betetzen zan
eguna, eguraldiaren erruz, etziran
bear bezin luzatuak irten.
Eri-Meza, bai, zoragarria izan zan.
Gure eliz nagusia ederra da, bainan
jendea zutik zurreko aldarerago iku-
si genun. Ifloiz entzun ez degun be-
zelako meza; angio xistu soñu, angio
abesti, itzaldi, txalaparta, bertsoak,
ezpailrik gabe, jendea konten eliza-
tik irten zan.

Gero, Eri-agintarien erabaki zuz-
nez, kale eder bati, Xenpelar-kalea'
ren izena eman zaito eta berebiziko
jendetza bildu zan. Peri-kale zarreen,
Xenpelar-kalea' daraman oroit-arri
berria zabaltzen ikustera. Axistula-
riak ekin zitoten eta «Agur jaunak»
abestuz eta txalo artean agertu zan
kalearen izen berria.

Ondoren, euri-beldurrez, Fuero'en
plaza-berri azpian, estalpean, dantza-
ri, bertsoari ta txistularien saioak
izan ziran, baita umetxo euskaldun-
en Xenpelar'eri eskeintza ere.

Bereala, eguraldiak itxura txarrak
etzeukalakoa, plaza-berri gainean, An-

dra Mari Abesbatza ta Eresbatza'ren
konzertoko entzun genituen. Guztien-
tzat txalo beroak izan ziran eta orre-
la oman genien bukaera «Xenpelar-
urtea»-ri. Ark. bertsoari aundi arek,
ori ta gelo ere merzi zituen, bainan,
esaerak diona: «Al danean alden-
txua, nire gizontxua...».

Ertirik urrit bizi diran errenderiar
asko agurtu ditugu egun orietan.
Izan dira Burgoziki etorri diranak
ere. Izan ere, erria benetan maite
danean...

MEZA EUSKERAZ

Aspaldian eskean ari gñin eta
orra, eliz nagusiko erretore jaunak,
Xenpelar'en urte-barruan, larunbat
ilunabarretan euskerazko meza ja-
rri digu. Meza ori, larunbat eta jai-
bezperetan, arratsaldeko izango da.
Jende asko, eliza betetzerako joaten
ikusi degu; konten egon leike gure
On Roberto.

JAIOTZA

—Gure adiskide, Juan Eskisabel'
en ematze dan, Rosi ikPakea'k nex-
ka bat —lenengoa— izan du eta Mi-
ren Agurtzane izen ederrez kristau-
tu zite. «Zorionak!

EGUBERRI!

Eta uste gabeen Eguberri'tan gau-
de. Gabon ilunabarrez, urtero beze-
la Olentzero eder bat iritengo da,
aurten ibaiak gazte elkarrekin eratu-
ta jakin degunez. «Aurrera mutillak,
oitura zarrei eutsi!

Guztioi Eguberri-jai zoriontsuak
opa dizkitzute.

ANARBE'K

ernani

Oso ederki erori da gure erri on-
tan Olazola'tar Joseba'ren omenal-
dia Eri guztiak ezagutzen zuten,
jaun onek egindako lanak bere abes-
ti gosuarekin, sari asko irabazi zi-
zela ere oso jaiotza zan.

Ernanin, oso ezaguna zan, ta ber-
tan jaiotza, bere erria oso maite zuan,
gizon ona biots berakoa ta oso eliz-
koi.

Urrengo batean jakingo dituzite
berari egon bear zaiola jaiak nolaz
izango diran.

TXISTULARIAK

Gogor ari dira gure txistulariak,
erri erri; igandero dela izaten dute
inguruko erriartara, beren abesti va-
murek zabaltzen. Berrogei ba emen
dira gizon, emakumeen artian, gure
txistulari trebeak zorionak zueri.

ZEZILIA, DEUNAREN JAI

Eliz abeslarien bazkarian asko
izangin. Jaten uste det ensaiotan
barion getago izan zirola.

Bereala izan zan «Epelen».
Eresbatzak ere izan zuan urtero
bezela bere banketea.

EZKONTZA

Loyola (azpeitin) ezkondu ziran
Begoña Zigarana «Joshe Mari» jate-
txeko jabearen alaba neska oso po-
lita eta Juan Gozaran gazte ki-
roltzalearekin.

Berez lasartearra.
Zorionak zueri eta zuen sendiari.

ZUBI

elduayen

Ilberri degu Jose Arostegieta Za-
rate. G. B. Bere ematze zintzo Joxe-
ba Uberatagoyena eta seme-alabak
atskabeen lagun gaitzute.

Lizartza'n, berriz, zoritxarrez ga-
ñera, Joakin Ayestaran Iturriotz, be-
rrogei urtedun alarguna, «Araxes»
lantegitiki etxerabidean kamioi bat
jo-ta; bere iletan antxe gñin, oso
adixkide ona bait genun eta inguru
auetan oso ezaguna. Bere alita eta
seme-alabaxoei gure doluminik bio-
tzekuen, G. B.

Inaki Linazasoro, gure lagun ona-
ren idazlan bat irakurri berria nazu-
te. Berak baño lentxeago qal beraz
egindako Joakin Ormaetxea'rena ere
baita. Bietan gogor egiten dute Be-
rastegi gure auzoerriaren edertasun-
aren alde.

Ezer gutxi gerala, ba'dakigu. Ala
ta guztiz ere, ezin ikilik egon gera.
Gipuzkoaren edertasunari begiratu
bear dion batzar edo zozor, dana
dala, sortu bearra agirlan dago. Da-
gokionari emendikantxe dei egiten
diot. Bestela laister gure txoko zo-
regarriak itxuskeri nabarmen biurtu
zaizkigu. Eta gero alper negarrak.
Amaika bazter ikusgarri gaitzen ari
gera aspalditxoan.

Lantegiak ongi daude. Betoz. Ogia
bait dakargitue. Baña ez nuzun eta
nola-nai ordea.

Meza-era berria asla degu. Libu-
ruxka eskuetan dutela askok jarrai-
tzen dute eta alaxe bear ere. Gure
Erretore Jaun On Antonio saiatzen
zaigu erakusten eta oraingo erabaki
berriak poliki-poliki sartzen eta ar-
tara oituzaten.

Neurririk gabe, ordea, lengoel
ere eutsi eta, zertxobait aldatu-
rik, gure aldirioa. Zenbat lekue-
tan gudu dirala aitzin detan bede-
ratzurren e. a., ez gurean. Zutik di-
raute. Leenean. Esate baterako, Ani-
menak eta Sortze Garbienak. Emen
etzago alde batzuetako marmarri-
kan. Legotan ere sei ta aurrera,
iflor mindu ggabe.

«ZERUKO ARGIA» geixeko zabal-
du bear gendukela-ta, jardunak gera.
Garai baten asteroko beste «Argia»
ura bezela etxe danetan artua izan
bear lukela eta onen antzeko zen-
bat ggorabea alipatu ziran.

Guztion iritziz errikoago azaldu
bear luke. Emen eta ingurumai guzi
ontan artzen dutenak auxe irakurri
oi dute. Eta gogoz gañera. Basarri-
ren lan errikoak, bertsoberriak,
errietako berriak erabat, Artetxe're-
nak eta beste zertxoren batzuek. Or-
tik aurrera, ezar dez. Gure ustetan,
erri bakoitzak urten laubost lantxo,
bertako berriak, jakina, argitaldu
bear lituzke. Eri aundiak badira, be-
rriz, baita astero ere. Norbere erria
gogoratua ikusteak asko bultzatzen
bait du. Zoritxarrez, irakolako uts
asko ere askodun agertzen zaigu.
Ez in ote ditekero iri zuzendu gero?

TALOJALE

azkolti

URTEBETETZEA

Joan zen igandean ospatu zuen
bere urtebetetzea Langintza Ikaste-
txeko zuzendari dan Jesuslagundio
alita «Maldabaita» gizon argi pre-
stua.

Aste biteren atzerapenarekin be-
deren bijoteko Azkoltiko herriaren
zorion agurrik gartsu ta bihotzkorre-
na.

EUSKAL ALFABETATZEA

Astelenhez hasi zen euskal alfa-

betatze ikastaroa. Ez dakit ziur zen-
batzuk izena eman ta ikasaldietara
agertzen diren. Dakidana da ogeita-
marretik behera izanen direla, ta
gehienak beste urteetan arituko.

Beste herrikide «euskotar» gazte
guztioi ene besakadarik maitekorre-
na ta ardandegi batean bilduko ge-
ran arte lasai bizi ta egunak ongi
igaro ditzatzutela; bainan ez moztu
orduan euskal kantak abestu ta
euskaldun finak zeratela esaten bai
duzue, ta ez dut horrelakorik entzun
nahi; mendigoizale zintzuek kontuz
mendi bidexketan irixtatu ta anik
puska gabe, Eurla gogor egin bai du.
Bazenekizuen?

Lo-zoro, folklorekeri ta mozkorre-
tik esnatzean ez ahal zaizue beran-
duegi izanen behintzat, parra gurea
etorriko litzaidake-ta.

GABON JAIK AURREZ AURRE

Eldu zaizkigu urteko jai berezie-
nak.

Irakurtzeko gogo gutxi duzutela
uste dudanez azaletik ta arinki zen-
bat pndu azal nahi ditzut.

Mahai aurrean, janaria oparo ta
zorionez aseak zaudetenok izan de-
zazutela besteekin kupida, ta oroi:
Galxoetxean minez zaudenekin, be-
ren zoritxarra egun hoetan haundia-
gata izanen delako, oroitlu erbes-
tean, desterruan, atzerian herri-
nez bizi diranekin, etxekoren baten
falta arkitzen dutenen samintasuna
gure biurtu dezagula, erruki-etxean

bakardadean ta sendiarteko maite-
suna ta berotasunik gabe daudenekin,
espetxetako gela ilun bakartietan...
oroi guziki... Ta gabon jai alaiak
guziori. ORMOLAMENDI

pasai-antzio

ITZALDI

Ba ditugu erri kulturak kezkatzen
dituan langilleak errietan. Talde piz-
kor bat Pasai Antzian dago.

Lanerako gai diran guk uste baiño
geiago ditugu, zorionez; askotan ez
gera ausartzen, au da txarra; ta gu-
re erriak berezko duan illuntasun bat
bezela da nunbait; orregatik, gai izate-
re gañera igari egiten jakin eta
gure ur otzetan murgil egiteko ger-
tu daudenak ez dira albeste. Ala
ere ba dira, bai, zaiatzan ez ba ge-
ra ingurartean gaituan urtean itoko
gerala dakitenak. Ta ara itxas-ertze-
ko erri biozduan onetan «Oargui»-ko
«Alkartasun Gaztedia» eta bere
«Euskal Jakintza» taldearen bitartez
Gabonetarako gertatu dituan itzaldi
saiakok:

«Arrotzak erriartzeko lana».

«Euskeraren batasuna dala-ta ga-
urko sozioleji arazoak».

«Elizak zer dio euskal arazoaren
aurrean».

«Izonaren osaketarako gizartearen
bear diran eskubideak».

ETXEO- ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE
ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu

ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabili beti

Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboai bakarra
Etxebako-andrearentzat neskametik egokiena,

JABON LAGARTO!

SOBERANO

Ai... ta alako
gizonentzat,
ala ere!



URTEBERRI
OPAROA GURE
BEZERO TA
ADISKIDE
GUZTIEI

GONZALEZ BYASS

BAI, EDARI APARTAI



ZABO SHI

gernika

Datorren ilaren, libeltzaren, lauan bertsolari jai bat izango da herri honetako Jai-Alai frontoian. Parte hartuko duten bertsolariak: Xalbador, Mattin, Lopategi ta Azpillaga izango dira. Lapurdi ta bizkaitarren arteko burruka bat izango da, txapelketa antzeko bat. Ordua eguadiako ama- biak eta sarrera 50 peseta. Bertsosentitzen dutenak, bertsoarekin go- setzen diranak badute nun asetu: Gernikan.

ABEL

arratia

Udabarriak eskeinduz euskuzan egun bizigarriakaz biztu ginen gu be- re, bizitzari urte barri bat egotziaz beste bat kentzeko. Zanak odol ba- rri ornidu yakuzan-da, iji ta uju emon gendun uda ederra. Eta orain, udago- yenean, zugatzak bezala indergatu- ta, eta txoriak bagina lez erbarrene- tan moltsotuta.

Paskoaldian autorentzulearen au- rrean makurtzen gara urteko uts egi- teak autortu, damotu ta bide barri zuzenagoak arteko. Urtea burutu da, azterketa egiteko aldiaren gara. geure kolkoari itzagitara beartuta gagoz. Gure erriaren alde eta eus- kerearen onerako zenbat neke biz- kareratu doguz, eta zelako eraba- giak eta asmoak doguz etorriko dan urterako?

P. Ipiñaren zorion-agur artubarría dot begipean, eta onen bultzakadari erantzuna emon guran, urtearen bu- ruan izan dodazan artu-emonen az- terketa azalorra azaltzera nator.

Begiak zabal-zabal eginda urte onen buruan irakurri dodazan esku- titz euskaldunak, 92 izan dira. 61 gaztek egindakoak geienak.

NONDIK?

Arratia'tik, Gipuzkoa'ko Arantz- zu'tik, Deba ta Donosti'tik, Pasa'tik, Irundik, Portugalet, Galdakao, Zor- notza ta Bilbo'tik, Burgoa, Segobia, Soria eta Alkante'tik. Eta itxaso- aren ango egaletik, Puerto Rico ta Benexuelatik.

Lotsati ta bildurti antzuak be izan dira erantzun barik itxi nabenaik, ba- ña, akulu zorortzagaz ekiteko gogoa dot, bai-ta, erantzunak izateko be.

Adixkide euskaldun gazteak: etzaitze lotsatu ta koldartu, gura- soakaz, anelarebakaz eta adixkidi- akaz euskerea erabiltzen. Bakotzak geure erriaren doguz eta aintzako- zat artzen dodaz; baña, amari ala- ri, anal edo adixkideari querida ma- dre, padre; querida e inolvidable ta antzerakoakaz esku-titza egitea, lo- tsagarriak eta itxuskerikirik baltzema baño baltzagon da. Oitu gaitzean ba gure erara egiten.

Alejandro, Erruperto ta Elias: zer barri dogu zuen arduraean itxi ne- ban lanatza? Gure erriaren onera- ko dan ezkerre, etzaitzean alpegiatu.

Gabon-agur mamitsua ZERUKO ARGIA'ren irakurle guztiak.

A. LANDAJUELA

galdakao

1969'URTIAIRI AGUR

Gure idazlantzu onek argia ikusi dabenak, ia amaitua izango da 1969'garrengo urtiau, egun bi edo iruren erabakigabeen egongo da, be- raz, betiko agur egin leuskiugu, Goi- ko Jaun'ri eskerrak emonaz orai- harte berton dauskeguleko.

Urte barria aia baño in, edo be- ra agurtuten dogun bitartian, ongi egongo litzake orraitio, azterketa sakon bat egitea idazleok, irakurleak eta baita be ez idazle ez euskel irakurle exditan euskotan guztiak, igu- ro dogun urte barruan zer egin do- gun jakiteko, euskera ta beste eus- kel arazo guztien alde. Gure lurral- de ontan, Euskalerria'n daukaguzan urazuak andiak dirana danok dakigu, eta, orreik erabagiten asiak baka- rrik garan ezketiño, bai-ta edoze- ñiek daki askotaz geiago egimbarrian garea ere lortuko ba'dogu, baña, zer egindogu, edo ezer egi dogu an ziru ikusiten doguzan eskubide- tara elduteko?, oso giti, giti bai- ño ez diralako benetako erimina ta askatasun egaria sumatzen dabe- nak; ez da gizonaren eskubideak al- destutzeke kemen andirik daukenak be askorik.

Ba'dira, ainbat, euren burua zer- baiten erakutsiteko gertu diranak, baña, izilik eta apaltasunik andie- nian, egun baten da bestian zerbit ondasungarri egin-biar dantian... Ien esan dogunez, oso giti! Orre bi- ta, zerbit egiten dabena akatsak eta utsuneek aurkitu bai, aindago errez egon-be zerbit egiten dabe- nai akatsak aurkitutent!

Ez dogu esanbiarrik, gagozan la- ge gogorpien egogin arrik eta, lage

ortatik urten gabe, era askotara len onik asko egin gintzakela euzko ar- luan, erri-jakintzan (folklore), ira- kasintzan, baita be kirolatan be berak gintzidien kementa zendatu- tzen dabelako, eta, zertan esan-bez, gure izkuntza, euskera arloan. Arlo nekatsu ortan ezer ondasungarriak lortuko ba'dogu, baña, leenen ber- toko giroa euskotuten alengidu bi- ur gara, ze, eusko-semeen adimenan euskotasuna sartzen eztozun arte, alperrikuak izango dira gure alegi- nik geienak bai euskera ta beste gai guztiauk indartsuteko, erakutsiaz zertarako ta zergaitik dan gura mai- tasun ori.

Euskaldun irakurlia, euskotarra edo ez, artu daigun erabaki sendo bat, inoz baño kementsuago jarrai- tzeo 1970'gko. urtian "asi-barri" dogun eusko lanian.

BASA-JAUN

elbar

EGUTEGIA

Urte beria bidean datorkigularik, urtero bezala Arantzazuko Andre Ma- rriaren Egutegia salgai jarria da. Ohi den lez argitaratua, Gipuzkeraz eta Bizkaleraz alegia.

Biak salneurri berdina dute, ha- mabost pesetatako. Osoki ez bada ere idazkera batua moldatua. Zen- bait hitz era bitara irakur dezakegu. Esate baterako, «bihar» eta «biar», «lehen» eta «lenengo». Dena dela ondo deritzagu. Ez genuen Franzis- kotarranand hitz gurea asperu. Esa- era bat dinokunex «ibilaldi handiak urrats bateaz hasi ohi dira».

Kezka bat bakarraz geratzen gara. Inoiz ahal izango al dugu «gipuzke- raz» eta «bizkaleraz» izen bereiz- tzaile hauek baztertu?

EIBARKO EUSKERA DALATA

«El Correo Español - El Pueblo Vasco» egunokoan Eibarko berri emale den Aterru Jaunak, halakoren beten euskerari buruz lantxo txiki bat eskeinduz digu. Tira, ez omen da inoiz berandu.

Beste edozeinbat gauza artean, gu- re inguruko mendieri (Urko, Galdar- ramiño etab.) lehengo eibartarrek ipini zizkietela izenak esaten digu. Egia esan esate honi askotxo deri- tza.

Lehengokoan ere, beste eibartar batek esaten zidanex Itxaso deri- tzan Golherriko herriak denbora ba- ten beten itxasun zegoala esangu- ra omen du. Gure izilik egon ezin haur Gripeak eragiten duen kalen- tura ote da?

Jarrai dezagun Aterru Jaunarekin. Beronek dinokunex Euskera galtzen dugun egunean Eibar ez omen da izango arteko Eibar. Bertako semeek ezin ahal izango omen dute «Euskal- duna»naiz.

Besterik ere esaten digu. Euskeraz hitzegin behar dugula ahal dugun sa- rrien. Gure indar guztiez euskera aurrera eroan behar dugula, euske- ra dirauino euskaldunak izango bait gara.

Bai noski. Errazoi duzu jauna. Bai- na... beti bainaren bat. Horri denorri gehigarri bat ezarriko nioke. Hau da, euskera irau den Aterru jaunak egin ohi duen baino euskera gehi- go beharko dugula egin, eta Ate- rrak inoiz ez duena egin ere. EUS- KALDUNORI EUSKERAZ IDATZI. AMATINO

lazkao

JAIALDIA

Benetan polita Ama Birjinaren egunean eman zigutena! Lastima

Landola-erramintak — Lan-tresna guzietarikoak. — Galtzairu kalibratuak. — Leunketa galeak.

F ERRETERIA UNZETA

EIBAR. Apartado 18. Ibarrecruz, 14

Urrutizkita: 71.000

BAR-RESTAURANT

AURRERA

DONOSTIAN ZURE JATETXE BAKARRA

Jrbleta, 12 — Urrut. 12578-11528 — DONOSTIAN

jende askok ez jakitea! Halaz eta guztiz, bi ekinaditan ugartu zan zerbit. Norik esan gure herrian ber- tan horrelako artistak gendukinik? Denetik ikusi genituen: dantzariak, soinu-joleak, abeslariak eta txistu- laria. Ederki litzake talde hori oso- tzen joango balitz; hortarako, de- non lana dugu zertxobit: batzuek ikasten eta besteak irakasten.

BEDERATZURRENA

Iende gehiegi gabe joan zan Ama Birjinaren bederatzurrena. Goizegi noski goizako sarak eta erdia! Ai ohearen gozotasuna! Betirako aha- tzu ote dugu benetan "euskaldun fe- dedun" esaera zaharra? Beste ama- ka kezka baditugu noski: herria da- la, edo eliza dala, besteen jokabi- deak derala. gauro gauzatuz oso jantziak egon behar gerala... eta abar; baña, hori guzia egiteko, le- hengoak ahaizu egin behar ote ditugu?

BORDAXURI

Oraingoa behintzat Bordaxurita- rra portatu zaizkigu; ai zer kusi- loko prantatu diguten! Zer izango, eta ezin gaitzaki: Cursillos de for- mación familiar. Orain hasteko omen dira: Educación, alimentación, eta Nutrición-ekin. Gero gehiago izango omen da, baña emakumeak preparamur.

Ezer ikusten ez dan bitartean, maiz iruditzi ohi zaigu ezer ez dala egiten; baña hara nondik atera zaiz- kigen, izileko lana ugertuaz! Askot- an hitz egiten dugu alde batera edo bestera Bordaxuritz, baña guk zer esaitzen degu? edo eta zertan lagun- tzen? edo behin ere avolatu ote ge- ra zer egin danetaz edo zer egin ditekentat?

Ez dezagun ahaizu, guk emaku- meok, Bordaxuri bigarra etxas be- zala zaindu behar gurekela guretzat sortua degulako.

UNANE

elgolbar

Hemen Elgolbarren taldetxo batek asteoro egiten dugu Z. ARGIA'ko idazlanen azterketa eta aukeratze bat. Aukeratze honetan «ola esan»i baño geiago begiratu dogu «zer esan»i. Ala ere nahiaio ditugu Eus- kera bateratu bidean diloatzenak.

Behar bada aukeratze honen ko- mentariorik ez degu azalduko, ba- ño asteoro aukeratzaren dugun idaz- lanaren «titulua» aitatuko degu.

Bi aste geroago ibilli beharra izan- go degu. Bakarka irakurri ta taldean diskutitu, ausartu eta aukeratu on- doren bidaliko ditugu.

Z. ARGIA, 353 zenbakitik hasiera emango dogu. Zenbaki honetan ARANTZAZU ETA APAIZAK, Gazat- riaga jauna izenpeutako idazlana au- keratzen da.

Ondoren: PASTORALA DALA-TA. Baita ere, URRUZOLA JAUNARI ERANTZUNA, oso detalla ontzat ar- tzen da.

SARIKETA

ELGOIBAR'KO GAZTEDIAK eratuta sariaketa bat izango degu. Sariaketa honetako gaiak:

GABONAK KANTAK: «Gabonak Euskal Herrian».

IDAZKERAN: Nere Herria, Eleizea, gaztedia, ohiurak; zer da EUSKERA ta Herri Kultura Gabon Jaietan?

Herri bat dugu, bere izkuntzare- kin, bere doñuarekin, ohiura batzuk, Kondaira bat eta egitaz HERRI bat osatzen ba dugu, adierazi dezagun gure Herri honetaz sentitzen dogu- na Gabon Jai hauen bidez. M. Isa- belfek.

AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA'k

Eguberri on eta Urteberri ohea opa dizue guztioi

DONOSTIA'n: Moraza, 3 ta 14'an.

IRUN'en: San Marcial, 12'an

Jendeari atsegin zaion bezelakoa!


BUCHANAN'S

Etxe famatukoa



BANATZAILE BAKARRAK: GONZALEZ BYAS eta CO. LTD.

Fuenterrabia, 33 • Urrut. 13994 • DONOSTIA



Egun onei dagokionez, Zorionak zorion yaso doguz aurtin be. Norbaitek, opa onak eskeintzen dautzuala ikusteak atsegin da-motsu.

Norbert Tauer Checoslavitarra, urrun bizi dan arren, ezta astu-ten. ¡Bota bosteko zarrori Norbert! Ta xegi euskal baitan!

Zubikaray ondarrutarrak barriz jecta auxe be geldi egoteak olerki txantel bat bialdu daust. Ta nik, zueri yarriko ementxe:

GABONETAN...

Urtean bein da Gabon, beingo onetan bon bon eta urrengoa or konpon. ...Jato da, jato jato, au dala jaiotzial, Semia eginda gero Maria dontzellia.

URTEBARRITAN...

Urte barri barri, txarri belarri, daukanak ezaukanari emon bear sarri.

ERREGETAN...

Trakatan trakatan Iru Errege, trakatan trakatan Belenera, Belenen jalo dan Yesu Aurtxo Belenen jalo dan Yesu Aurtxo

URTE BURUAN...

Amets, etengabe, betiko ametsetan!

Beste batek oster, ez noa be-re izenik yartzera, adarra yoten idatzi daustala uste dodalako.

Auxe galdatzen daust: «Egia al da bilbotarrok, batasunagaitik, illen izenak aldatzia eskatu dozuela ta beste oneik «proposatu»?»

Enerua, Febrerua, Martsua, Aprilla, Mayua, Junixua, Julixua, Agostua, Setiembrea, Otubria, Diziembria?».

Adarra joteko geu be oheak gara la ez egizu ezbarrik izan. «Ma-yua» Arrilari, Lorallari, Mayatza-ri? Apur bategaitik «Mallua» ez-ari bear zeutson. Fabrerua, erua zala entzuna nintzan. Ez orraitik, Enerua, Eneruan, katua tellatuan. Ori bai.

Diziembriagaitik... bizi hem-bria esan nai ete dozu?

Gazte ba'zara, izango dozu au-kerarik asko. Abenrua II ona da ortarako. Zarra ba'zara, Mallua etxatxu txarto etorriko.

Zuk adar-soñuaz idatzi ba'zeus-tan, or daukozu nere soñua be. Ni, zure «soñuak» ez nindun asa-

rratu. Zu be ez al zaitu asarratu-ko, nereak. «Empate!» zure «pro-posituentuaz».

Eloy Arin'ek, Abadiño'ko ola-gizonak, (ola itzela yaso dau er-mutar onek) beñola ementxe azaldu neban izkirimiria, barriz idatzi dagidala eskatzen daust, San Blasetan baseritarrei iraku-ri al izateko. Oso atsegin ei ya-ke.

Orduko arpededunak irakurri izango eben arren, irakurri ez eben berriak be, izango dira gure asterokoan, ta arpede berri bat-zuk egin daizuzan or doatzu:

«Koxanton bai yolan azokara beia saltzeko asmoz, bitzabala zeaz.

Igaroten ziran otomobil guztieri geratzeko agintzen eutsen, baña inok ez eutsen yaramonik egiten. Ez zan arritzeko, gizona beiazaz ikusirik.

Baña berak, berean yarraitu eban eta alako baten, bat lotu zan galdetuz:

—Zer nai zenduan gizon?

—Eroan nagizula uriko azoka-raño, ia bei au saltzen ba'dot.

—Kontxo... zu eoran zindeke-daz baña... beia ez.

—Beia etorriko da atzetik. Ez izan orren ardurarik.

Sartu zan Koxanton belbillen. Au asi zan astiro ibiliz. Beia tak-taka yarraitzen eutsen. 20 kilometroko abiada emon eutsen txopexker belbillari, ta beia orrez yarraitzen eutsela ikusi eban ispilluaren bitartez.

Ori ikusirik, 40'ko abiadan ya-ri eban belbilla, ta beia xegi ta xegi. Arriturik, txopexker sar-tu eban 100 kilometroko abiadan, eta... ispillu bitartez ikusi eban, beia mingaña atarata yarraitzen eutsoela.

Arrozko esan eban txopexker: —liño! ointxe larri dator zure abere ori. Mingaña atara dau.

—Ze aldetara? —galdetu eut-son Koxanton'ek— Ezker aldera ala eskumara?

—Ezker aldera.

—Orduan... bidea libre laga-tzeko diñotzu, beretzako abiada au, txikerra da-ta.

ABELETXE

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERREENTERI

AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA, S. L.

IZUGARRIZKO SALGAI GARBITZEA!!!

ERREDIZEN SAILLEAN,

EUNEKO 20, EUNEKO 30 ETA 50 ERE MERKATUKO DIRA SAL-GAIK

Amuebladora COMERCIAL HISPANIA, S. L.

Moraza, 3 eta 14 — DONOSTIA — San Marzial, 12 — IRUN

IZKIRIMIRIAK

"TONGO" EGITEA AZTU...

Ez det uste munduan "mundrau"arren "izkirimiri" izan ditekunik gure erriko izakera obeto adirazi dezakeenik gaurko onek baño; izakera zakarra, beroa, gauzak benetan artekoa, biozti uts-utsa, pittin bat umetia, baña beste ezeren gainetik izakera noblea...

Gauza jakia da Mondrago'ko erriak oso pelotari onak eman izan dituala; "Mondragones" a, "Txurdoa", Arriaran anaiak... Baña "punte-rengo" pelotari oriek euren oiñarria eskatzen dute; aibesteriaño iritxi ez badira ere, beste pelotari "politi" batzuk, eta izan izan dira Mondrago'en oietakorik...

Beste zenbaiten artean "Zarraoa". Profesional izatera iritxi ez bazan ere, oso "politto" egiten zuan pelotan, eta gaurko "izkirimiri" au bea-reakin doa...

Bein bere "clan"eko batzuk partidatu bat eratu zioten bat biri, au da; "Zarraoa" beste biren kontra. Baña "clan" oriek ez dira beti garbi garbia izaten eta "Zarraoa"ri aukerabideetan jarri zioten partidua amarrutua zan; "Zarraoa" k "tongo" egin bear zuan...

Asi zan partidua, amabira uste det, eta "Zarraoa" "fiñ-fiñ" asiz an "tongoan", lau ta uts bere kontra...

Ontan "Zarraoa"ri oso eskura etorri zitzaion jokaldi polit bat; jotzen ditu ormabiak (paretabiak) eta an ikusiko zenituan bere kontrarioak era-bat noraeztuta, zeroa naustuta. Pittin bat diximulatze aldera ta beste pittin bat jokaldi arek orrenbeste merezi zualako, "Zarraoa" zaleak txaloka usi zitzaizkion. Ez zuan besterik bear izan "Zarraoa" k, jakia, urrengo saka-berak, ez zuten bere kontrarioak gaitio tantorik ez eze, eta geiago pelo-tarik ikusi ere egin, eta jakia, bere "clan"ekoek txalo ta txalo ta "Zarraoa" ordutan eta berosgo. "Total", amabi ta lau...

Gero "clan"ekoak bildu ziranean esaten diote "Zarraoa"ri... Baña, baña zer eñ duskuk?... Orduantxerarte ez zan "Zarraoa" bere egiairen egitekoaz konturatu ta erantzuten de-lainoki... "Zueik daukatuzte kul-pak!... Zertan jaten zeuntien txalo?... Nik benetan artu jittuati eta "TON-GO" EITIE AZTU EIN JATAKI!"...

TXOMIN

...ELEIZ BARRUAN PRESO

(3'garren orrialdetik)

zian... jan gabe egunetan... ur utsa' rekin. Erratza, eskoba, ura, baldea, darabilzikiten eun emakume lanera biur ditezten, bost gizon jakintsu go-se oporrean... Lan apal eta umille-nak egiten zituzten'en alde bost ja-kintsu-teknikuk gose oporrean... Goi-goleneko bost jakintsu beeneko ma-llako langileen alde gose-oporrean... egunetan... eleiz barru ba tean. (Te-moignage Chretien'dik artua. Aza-roa'ren sei'ko alea).

Langille soil eta Empleaduak ga-re lantegietan. Bigarren ok ez ditu-zu lantegian nagusi... administra-zioan. Ofizina lanetan diardute... Langile dituzu, baña goragoko ma-llakoak... Langille, baña geienetan biotz eta buruz Nagusia maiteago... Lantegi batean langilleen eskubi-deak zapaldu dituztelata, Zen bat Empleatu ote oporrera joango dira-nak langille soil'aren alde? Opor-utsera, ez gero gose-oporrera. Lan-gille soil eta Ofizinetako emplea-tuen artean etago ba aibesteriaño-ko tarterik. Auidixeagoa zegola derit izait. gose oporketa egin zu-ten bost jakintsu eta beste eun ema-kimetro aien artean...

Ta zu, langille soil zerana, zure alboan lan egiten duan laguna'ren ade zembateraño zure burua sakrif-i-

katuko zendeke...? Zure lagun orren eskubideak zapalduita ikusten badi-tuzu, Zer egingo zendeke bere al-de...? Nagusi ta Enkargaduekin di-tuzin artu-eman gozok puskatze-ño, jokatu eta zendeke zuzenbi-de eta justizia'ren alde...? Zuzen jokuta, zure gora ingotsea lan-te-gian, ariskian jarri bai...?

Nunai arazoak dirala ta, ordua iritxi zate langilleen euren alkarre-riko senidetasuna aiberazi ta ator-tzeko. Nere inguruko langille ar-tean, zoritxarek ikusi det, etaude-la geiegi kezkatutik aingora be-ra-kin.

Gure langille askok burgestuta daude... Kapitalisten pentsakera daukate... Bakotzak bere arazoak erabakitzeko bakarrik lan dagitela dirudi.

Ezta eurena errua... Eskola Pro-fesionalen teknika aldetik langi-lleen semezi burua jasotzen eraku-tsi zate. Soziologi aldetik oso gu-txi; Eskola oietako ikasleekunak be-ren buruak aurrera ateratzeko, izan dira ez bere senide angileak salba-tzeko.

Uxatu bitate norberkoikeriak gure langilleak. Prest egon bitez zu-zentasuna'ren alde kementsu joka-tzeko.

A* TAR JAK

ERLOJU TA BITXITEGIA

Edoardo Chopeitia

Vergara, 11 - Urrut. 17751 - Etzekoa: 22700 - DONOSTIA

GUKELESA



Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onenakn gertatutako esnekiak:

- Esne Pasturizatu
- Esne soila (esterilizatu)
- Esne autsa
- Esne-gaño
- Gurria
- Yogur
- Belduak

Igara auzoa - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ari) - DONOSTIA

Itzaldia Donostian

ELKANO liburua berriua argitaratu da

Izlaria: José de Arteche, egilea bera

Abenduaren 11-an, eta Donostiko Aurrezki-Kutxaren «Actualidades» artean gertatuta, egin zuen José de Arteche jaunak berri Elcano liburua berriua aurkezteko itzaldi mamtsua.

Itzaldia bera aitatu baiño lenago, izt bat.

1. Diruaren iturbidea gizonaren izerdia da; diruak ba du bere zertara ere; gizonaren artu-emanak pizkorta ta gizon osoaren mugigarri izatekoa. Gizon osoarena. Ez gizonaren este-ontzi ta gafonteko soinadarena bakarrik; baita berekiko ta goiko duan espiritu-arnas orrena ere. Oin errepia:

Eriko dirua Aurrezki-Kutxak lanean jartzen du. Baiñan, lanean norenzako? Eri beraren irabazirikako noski, ta Aurrezki-Kutxan erakundeatarako ere bai; bidezko baita. Baiñan zertara ematen diran irabazi oiek? Etxeak eta fabrikak egiteko. Ono dago. Ta bizi-bideak zabaltzeko ta arintzeko. Baita. Baiñan nola bizi-ziteko? nundik gatzoen, nor gero eta nora goazen jakin gabe irauteko?; guk zanko bat aurrera ta gure semeak beste bat atzera emateko bideak ibiltzeko?; gu semeak gure gertazeko, ta gure aurrak aiton-amonik eta gurasorik gabe, umezurtz, uzteko?

Bakoitza berearen nagusi bear luke.

Ara or atera dan Guipuzkoa izeneko liburu ederra; Guipuzkoa probintziako Aurrezki-Kutxak argitaratu du, ta ondo dago. Ta era orain Donostiko Aurrezki-Kutxa ere «Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones» babesten, eta liburu onen irteerak kezkatuta bere aretoa eskini; ta au ere ondo dago. Batzuek, besteak gutxiago, ari dira diru-erak batzuek gure erriari, euren erriari, laguntzen. Eta ara emen gu: gutxi baiño giago laguntzen digun diru-erak eman bear dizkiogu gure diruak; eta gutxi baiño gutxiago ematen digunari, bat ere ez.

Aukera gurea da.

2. Elcano liburua Jose de Arteche aspaldi egiña du; ba dira 27 urte.

Bere itzaldian zion bezela, garai artan Zarautzen bizi zan egilea; San Ignazioen bizi-kondaira bukatu berria zeukan, eta Getariara pasiatzen zijoela bein baiña giagotatzen gogora etortzen omen zitzaizkion bere aitonak ainbat aldiz kontatutako Elkanoren itxas-inguratzeko ibilaldi luze ta neketsu artako gertaera arriagarriak. Eta San Anton menditik erriara begira zegoela Getariako eliz ederraren barruak esaten zitzenarekin, sortu zitzaion San Ignazioen beste erriarte eta adiñ bereko ta la leku bertako euskeldun ospetu onen bizi-kondaira egiteko gogoa.

Ta ez barruko su erakille onek eraginda bakarrik; baita asarreak bultzata ere.

Garai artan-edo irakurri omen zuan egilleak Stefan Zweig idazle ospatsuk idatzia zeukan Magallanes izeneko liburu. Zweigek, egia da, murreriz edo oiztasunez, eta baita begi-zeurrez ere, begiratu tajatzen du gure erriartara; bear ba da Magallanes bera giago jasotzeko artu zuan egite bat izan zan; guk ez jakin; baiñan nola nai guretzat okerra izan zan, eta iraingarria ere bai; ala, orain dala ogel ta zazpi urteko José de Arteche mindu zuan, eta oraindik egin ez zan Elkanoren bizi-kondaira egitera bultza zuan.

Ara nundik etorri zitzaion gure Elcano itxas-gizon trebe ta asararen lenengo biografia; askotan izan oi baitira okerrak dirala uste dagan bideak zuzenak.

Lenengo edizio ura Espasa Calpe argitaratu zion.

Gero, liburu urten eta gero, eta maiz gertatu oi dan bezela, Joxe bera asagabe utzi zuan; eta lañotasun batek eraginda, bere uste au xaloki altortu zuan nundait. Altortu ez ba lu obel Geroztik bere itz berekin gertortu izan dan idazlea. Ta ala zion Arteche jaunak, elegie sortzailak ez duala beñhere bere lana gutxi-etsi bear; lan bakoitza bere errespetua merezi duala, ta idazleak berak ere ez duala oinperatzeko eskubiderik. Alaxa da; idazlan bakoitza bere

giro ta leku ta orduko semea baita.

Oraingo erantsi berriekin aberastuta egin dan edizio au Javier Aramburk bere ardurapean daukan «Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S. A.»-ek argitaratu izan da, ta, ain zuzen, lur-bizitzeko ibilite arriagarri ura asi zuteneko 450 urte-urrearen, urriak 20, Graficas Izarran, bukatua.

3. Elcano izena dala-ta gauz jakingarririk esan zituan izlariak.

Orain dala berrogei ta hamar urte, lur-bira egin zutenaren 400 urtebetetze ospatzeko gure artean antolatu ziran jailetan, Juan Sebastian del Cano izena erabili zuten. Zuloaga margolaria bera ere zulo orretan sartu zan; Gipuzkoako Diputazioak agindu zion kuadroan alaxe jarri baitzuan: «Asi me parece que debió ser nuestro gran Sebastian del Cano». Baiñan gero, 1920-an bertan, don Serrapio de Mujikak bizidatu zion idatzia: «Elcano y no Cano. Escrito presentado a la Junta del Centenario de Juan Sebastian de Elcano», ta baita urrungo urtean, 1921-an, Eujenio Urroz Erroko berak idatzi ere: «Cano y Elcano». Ta gero Telesforo de Aranzadi (beste ta Segundo Izpizak berak ere bai).

Ta oiek ondo zioten bezela izan. Aya, Zarautz eta Getariaren gain batean dago Elcano auzoa; garai batean Ayako erria auzo onen menpean egon zan (garai bateko lur orduko Ondarribarren ardurapean egon zan bezela) ta Ayako Elcano deitzen omen zitzaion. Eliz inguruan iur baserri omen daude: Elcano-goenak, Elcano-ordak ta Elkanobarrena. Ao jakintzak dienez, Elcano-goenatik datorren jatorriko omen zan Juan Sebastian de Elcano.

Emen Elcano paita izan bazitzaigun ere, Naparoon bertan ba da Elcano izeneko erri bat; beste Beristain de Elcano izeneko bizi-leku bat ere bai, ta Donostian bertan ere ba omen da bestea.

Egia tapatzeko Cano ori baiño ille beltzago duan norbait arkitu bear-ko dute beraz.

4. Lurbera egitera urten ziraneko 1519-an, Juan Sebastian Elkanok ogel ta amabi urte zituan. San Ignazio baita lau urte zarragoa ta ogel ta amar kilometro inguruko lur-tartearen jaloa; Legazpi baiño 13 urte nagusiagoa zan, Frantzisko Xabier baiño 19 urte ta Urdaneta baiño 21 zarragoa.

Ba zan gizona garai artako Euskalerrian.

Elcano noiz jaloa danaren berri ba degula, zion Arteche jaunak, baiñan bera gizon bezela nolako zarenan tutik ere ez alajaina. Bera ikusi zutenak ba dira (batez ere Indietako berri-omaila Gonzalo Fernández de Oviedo) baiñan ez digute txikia edo aundia, illegorria edo beltzarana zainik, eta ez me edc lodi zainik ere esaten.

Zuloagak ere, bere izenaren antzeko ziurtasunarekin mosu-belarriak eta gortputa asmatu ba zizkan, Diputazioan daukagun gizona ez da gure getariarra zarenan antzekoa ere.

Izlariak zionez, bere giza-irudiaran ordez, gogoz eta izatez bera nola zaneakoaren erretratu bat utzi zigan bere testamentuan, eta baita 1587-an Mexican azaldu zan Garcia de Palacios idatzitako Instrucción Náutica para el buen uso y reglamento de los naos liburuan ere. Emen irakurrita daki Arteche jaunak getariarra gizon abila zala, kontuak eramanen ona ta zintzoa, itxas lanetan jakintsua, ontziak kargatzen oso ondo zekilana, ta, gañera, «gizon ona».

Ba zan gizon ura gaurkoak ainfeko.

Ausarta gaiñera.

Ausarta gaiñera.

Gaur egun illargira joan diranak ere ez dute, gero, gizon aien bakaraderik sentitu illargia urrutirago dagoala esango du norbait, eta alu zela baiño ura lodiagoa ta lgeri-eragoa dala ere bai. Ta ala da. Baiñan orduko gizon aien itxasoa gaur gure iaztegi bezin ez-egazuna izan; ontziak abiadura kontuan artuta, ur-ontzien bidea luzeagoa ere bai, ta garai artako ur-ontziak gaurko zuziriak ainfeko arrixkoak zituztenak zi-

ran. Geiago: itxasgizon aiek ez zuten bestez elkar egoteko errati-biderik eraman, eta au edo ura gertatzera-koan, ura edo au egiteko lagunduko zien lñor ere ez. Ontziak zerbitu jo (arkaitz maparik ez) eta bidean betiko gertatuko ez ba ziran, eguez bakarrik mugitzen omen zan Victoria izeneko azken arte irau zuan ontzi txiki au (85 tonelekoa: tonel bakoitza toneladaren 6-tik 5). Gafontzeak: Trinilal, San Antonio, Concepción eta Santiago, bidean galdu ziran; eta urten ziran 265 gizonetik ere 247 bide luze ta neketsu orretan il ziran. Elcano ontzi kaxkar eta bakarrean beste 17 gizonekin iritxi baitzan.

Arteche jaunak zion bezela, bakoitza bere giro ta ordu ta tokian jarri bear dira baliok berdinakiteko.

Victoria ontzi au Zarautzen bertan izan omen zan. Orain arte ez zan ziurki esateko probarik; baiñan don Fausto Arozena edeslari ospatsuak arkitu duenez, Elcano berak eskatu ta gero Zarautzen bertan egiña izan zala. Jakina da, ta au ziurki, oraindik argitaratu gabe Diputazioan gordeta dagoan idatzi batek dion bezela, orduan Zarauzko Urtearen-ontzian 300 toneleko ontziak ere egiten omen ziran.

Oiek danak eta giagoa esan zituan Arteche jaunak leporatu beteta zegoan «Actualidades» zine-aretoan.

Azkeneko galde-erantzunetan itan-du zioten, ia, ba, orren ospatsua gure gizona izan eta nola lenengo ibilaldi onen urren gertatu zuten beste ibilaldi batean Elcano bera bigarren utzi ta gidari nagusi bezela aundia zan Frey de Loaysa, Burgos de Osmeko obispo jaunaren anaia, artu zuten?

Erantzun bearrik bai dago?

UGALDEAR MARTIN

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTITATIK
Blas de Lezo Kalea, 6 Urrutizkifia: 12065

— DONOSTIA —

ERREGEEN EGUN AURREZ ESKUTITZ IDEKIA GURASOEI

Ba-dakit, aldeaz aurretik, ondoren- go lerro auk irakurtean, zenbait dendar aur jostailu saltzale diranak, neregari kopet illun eta asarre xamar jarriko zalzitakala. Ez nator aiei miñ eman asmoz baizik eta gurasoei dei berezi bat egiteko gogo bizi- an, nere iritza beren barnean sartzea besterik ez dute errenkada auk Dendariek minduko bailira, leendik gauzak erosiak dituztela ta, arren barkatzen jakin dezatela eskatzen diet.

Aurrak, leen eta orain, beren pentsakizunak dituzte. Askotan gurasoenekin alkar josten ez diranak. Esatera zaar batek ala dio: «Zer ikusi ura ikasi». Egia benetan. Gaur eguneko aurrak, batetik telebisioa dala, irratitiki entzun dutela edo ta izparringi edo egunerokoetan irakurri dutelako, metralleta, tanke, robot, gerra iziliku ta oietakoein jostaten besterik ez dakite. Ono pentsatuta, tamalgaria benetan. Gizona ilteko tresnar aur jostailu alajaina! Ara zertara iritxi geran. Ta aur oiek, beren eskutitza Iru Erregei zuzentzen Meltxor, Gaxpar eta Baltasar'i, eunetik larogei ta amarek, ez dakite beste gauzarik eskatzen. Derrior tresna oiek bear.

Gurasoei lan pranko izango degu pentsakizun oiek gure aurtxoan buruetatik kentzen. Baiñan, nere ustez, ezin genezake bi besoak doloztatuta gelditu. Gogoz eta aretoa bizi, gaur bertatik, gero «lanean» asi bear degu aurrei jostailuak, benetako jostailuak, zer diran buruan sartzen. Ba-dakit bear bada ez dala gauz erreza izango ta ba-dakit, bestalde, guraso asko ta asko neronen aurka izango zeratela gutxi gora bera au esanaz: «Zer, gure semetxoak ez al dute zibilizaziorik bear?». Ori zibilizazioa baldin bada, leku edo errean gaudel Alperrik ari nazute ta karta au irakurtzen denbora alperrik galdu dutenak, barka deidatela.

Munduan poz aldi egunak izan ditut. Beste aldekoak ere bai. Neretut, datorren Errege Egunean, poz aundienetako bat auxen izango litzake: Aurren eskuetan gizon ilte-



ko tresnarik, naiz jostailuak izan, ez ikuste, Lortuko ote det?

Zuen lagun eta adixkide.

JESUS LETE

«Ibai-Ertz»

Bodegón

Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago Donosti'ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zintzo dakite aruntz joaten. Nai dan aukera ba-dezu beti jaten bezela edaten, oberik ezin arki ditek merke ta ondo ematen.

Fernin Calbetón, 4
DONOSTIA

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutsa onen laguntzak: — gizarte-saillean

— diruketa-saillean

— lantegi- zuzendaritza saillean

ZUK AUERRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI

PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU.

Laguntza ezin oheak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu.

Gure landolark erri auetan idikiak daukagu:

Mondragoi
Aretxabeleta
Elorrio
Barakaldo
Ondarroa
Andoain
Plazentzi - Soralezu
Ofiati
Ormaiztegui
Beasain

Gernika
Zumarraga
Elgoibar
Markina
Bergara
Altasua
Elbar
Tolosa
Pasa San Pedro
Errendorri

Gastelz
Bilbo
Legazpia
Iruñ
Durango
Amorebieta
Azpeitia
Erandi
Zarauz
Seestee

Azkoitia
Munguia
Yurre
Bermeo
Lasarte
Santurtzi
Zumaya
Donostia
Iruña
Deba
Anzuola

EUSKALDUNAK

OTEIZA: BORONDATEA

EGONEZIRA

Oteiza-kin nago. Gure Errian, Oteiza la bat bakarra ezagutzen degula esan ditek.

Gartsua dala esan dildate. Gogora etorri zalzikit Gandiagara-ren itzak:

GIZON...

ZEUK LEGEZ DAUKAT
ARIMA GARTSU BAT

Ta, nere buruari igarri gabe, Oteiza-
ren billa noa. Ez dakit, ez; ez da-
kit zergatik noan bere billa; ta,
ala ere, su ta gar, ara noa.

Orrela esan dit, aurrez aurre: «zuek
gatzok, ez daukazute la egonezi-
rik. Ta, daukazutena, lastoaren an-
tzera erretzen ari da».

Alkar itzezin ondoren, bere kezka
garbiaz oartu ondoren, galdera
au etorri zait itzetik ortzera: nun-
dik sortu egonezin sendo ta gar-
bi baten indarra?

Oteizak Euskalerrria bere tokian ku-
si nai du. Ala dio, Euskalerrria es-
na arazi nai du; orain ari da. Be-
re blotz zabalba eskaintzen du; ta
aspalditik, gañera.

Lertzeko zorian nago: mundik sortu

egonezin sendo ta garbi baten in-
darra?

ZERGATIK?

Baño aztu baño len, galdera au egin
nai det: nola liteke egoneziña uka-
tze ori gaur eguneko gazte eus-
kalzalek ikusita?

—Zaletasuna dagonik ez det ukatu.
«Zale» (amateur) asko ta «profe-
sional» gutxi. Ortze dago koska.

—Txarki iruditzen al zaizu euskalze-
le askoen zaletasuna?

—Oso txarki, ez ezik. Nik ez ditut
euskaldun batek bear lituzken gu-
ziak, bañan lanan ari naiz. Beste
batzuk ere lanan ari dira; bañan
arokeri biziz. Sudurra euskalduna
dutela, itxura euskalduna dutela
ta gutxiagotzat daukatenak baz-
tertu oi dituzte. Olakoekin ez da-
go gauz onik.

—Nola bear luke ba, zure litziz,
euskalzaleen jokaera?

—Gaur egunean danak dira bearrez-
koak. Asko ein lezakena ta orain-
dik gutxi lezakena. anak. Bakoitzak
al lezakena egin beza. Gañantze-
koa, adarra jotzea. Besteri ez.

JOKAERA BEREZI BAT

ARANTZAZUKO MENDI MENDIAN
HAMALAU ARKAITZ LAZGARRI,
BAI ZERU-MINEZ, BAI ESKUAL-
MINEZ,
BIOTZ GUZIEZ PIZGARRI.

Iratzeder

—Adibidez: zuk aspalditik asitako
lana bukatu zenduan emen, Aran-
tzazun, Nolakoa izan da zure jo-
kaera?

Ba dakigu berezia izan dala ta oier-
tzu aundiak sortu ditula. Izan ere,
liburu askotan ikusi ditugu zure
Apostoluk; liburutari bai, bañan
ez nai ordureko emen.

—Egia esan dezu nere jokaera bere-
zia izan dala esan dezuean. Ne-
retzat, berezitasunik aundienak,
nere nekeak.

Adibidez, «sakonki maite dut nere
Erria» idatzi nunean. Egun oso
txarrak igaro ditut. Iñork uste ez
bezin txarrak.

Bati asko eskatu, bat orrek alegiñak
egin bein ta berriro; ta erantzun-
ik ez. Egoera gartza! Orenbes-
te lanen ondorengo erantzunik ez
orrek langillena ere nekatzen du.
—Lagunik arkitu al dezu?

—Zorionez, bai; lagunak arkitu di-
tut. Borondate oneko gizonak ar-
kitu ditut emen, Euskalerrrian. Bo-
rondate! Besterik ez genduke
bear...

MAITASUNA

—Une txar oietan, nola etzera beste
luraldetara joan?

(Sao Paulo-ko saria irabazi ondoren
egoera oso ona izan zuan. Olako
«maukak» ez dituen emen beñere
arkitu ta ez arkituko ere)

—Euskalerrriko zenbait gizakien zin-
totasuna ikusi ondoren ez det
inora joan nai. Nere Erria, Euska-
lerria. Nere biotza, beretzat.

—Orduan, len esan dezun arrokerien
gañetik zintzotasuna ere nabaitu
dezu?

—Ta ez nolanaikoa. Bere lanari eus-
ten dakiten personak; bere ba-
rruan Euskalerrriarengana ma-
tasun ori egosten dipozenak; ne-
re maistasuna dutenak.

Orrelako euskaldunak ere arkitu di-
tut. Ixillik, istillurik gabe, lan ta
lan, zintzo beti. Bere akats ta gu-
zi, borondate ona nabari dutela,
beti jardunean. Ai, orrelako asko
ba-geintuzke!

NEKEA

—Orrela, ba, arrokeriak baño gauz
obeak ba dira gaurok Euskale-
rrrian?

—Bai, bañan langille zintzoena ere;
bere ixillean eta bakardadean ari
dana ere, nekatu egiten da. As-
kotan ez bai-duk ikusi li-
teken probetxua.

—Bukatzeo: zuk ze litziz dezu gai
ontaz?

—BATASUNA. Euskal gogoen bata-
suna. Alperrikako eztabaidak be-
ti alperri-kakoak dira. Ta gaur egu-
nean burutik joandakoen itxura ar-
tzen ari gera eztabaida oiek dira
la medio...


INAXIO MARI OTEGI

ARGAZKILARIAK:


ARLANZON
DESTELLO
PLAZAOLA



EGONEZIÑA, NUNDIK?



ARRIAK ERE IZKETAN



ARANTZAZU 1969

ZEÑEKIN...

Ezda errea esaten, esan nai nukean. Egunak dira buruan dabil-
kitela. Orrelakoa eskritoreari gertatzen zaionean, lan-gela sartu,
exeri mai aurrean, mai gañeko argia piztu eta lume artzea anakorik
ezta.

Orize egin det nik momentu onetantze.

Eta begira zer bururatu zaidan berialaxe. Orain dala ogeitamairu
urte Donostiko periodiko batian eskribitzen nituan artikulua. Nik
ogeitamar urte nituan.

Nik esatia ez dago ondo, baño sasoi artan, 1930-garreneko gerra
aurrean, artikulua inportantia zirar. Zer edo zer ba zatorrela adie-
razu nai nuan, eta baita beste auxe batez ere. Zetorren ikaragarri
orrek euskaldunak tartean erremediorik gabe arapatu ta zapaldu
bear giñuzela.

Ikusi ta berri irakurri nai nituzke artikulua aiek. Uztaleko 17-an
agertu zan aizkena. «La libertad acabó» zuan titulua. Au da: «Li-
bertadea bukatu dal / Gaizki al-zegoan titulu au?

Amar edo amaika urtean periodikoetan eskribitzeko aukerarik ez
nuan izan ordutik. Ixillune luzera nerea. Liburuak idazteari eman nion
oso osan bitartean. Ate bat ixten zaigunean beste bat irikitzea
anakorik ezda. Ez etsi beñere. Ondo aprobeztatu nuan denpora.

Alako batian asi nintzan berri: erderazko artikulua eskribi-
tzen. 1947 urtea izango zan.

Eta baita ogei urte buruan an eta emen millaka artikulua erderaz
eskribitu. Saiatu naiz, salatu, al-delala beñezat gauzak esaten. Ez
da izan errea.

Sasoi guziak ez dira berdiñak izaten eta erderazko artikulua
eskribitzeari utzi egin nion era bat.

Gure erriari egi gordinak esateko garaia iritxi zala iruditzi zitza-
idan.

Ogeitamar urte nituanian bezelaxe ez negoan konforme. Gure-
gurea dan erriari itzegiteko garaia iritxi zala pentsatu nuan. Aukera
berri, gure asteroko maite au.

Saiatzen naiz orain ere gauzak emendik esaten. Esan bearrekoak
dira. Erderaz esango ez nituzkenak adierazten ditut euskeraz.

Batez ere gure erriaren erantzun-bear zentzuari, erresponsabilida-
deari, ikuitu nai nioke.

Geiago esaten ez ba ditut ez da nere kulpak. Eskritoreak bakarrik
dakizki gaur eguneko eragozpenak. Eskritoreak berebiziko ekilibri-
yok bear ditu egin. Komeriantik alambre gañian bezelaxe.

Bañan joan nadin ari. Bertsolariak bezela, nik ere artikulua onen
ziriyi aurren-aurrenetik daukat buruan. Eta oso garbi gañera.

Auxe da nere ziriyi. Denbora guziak ez dirala berdiñak, eta
munduan beti izaten dirala kanbiyuak. Au alde batetik. Eta beste-
tik berri beste auxe. Aldan modurik onenean esan nai nuke. «As-
matuko al-det?

Euskaldunak iru gerratetan galdu dutenarekin apuntatu gerala.
Pasiak pasa. Jainkoak inundik ere ez dezala nai, baño, langarren iz-
kanbilla sortuko baltiz, zeñekin apuntatu bear degu? Berri ez
galdu bear dutenarekin?

Lois de Arca